

Kanpezu- Arabako
Mendikateko Kuadrilla.
Indarkeria matxistaren
egoeraren diagnostikoa
2017



**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA**

**2017
EDUKIAK**

SARRERA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
1. METODOLOGIA	5
2. KONTZEPTU ETA TERMINOLOGIA MARKOA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
3. BIZTANLERIAREN ETA KUADRILLAKO BERDINTASUN POLITIKEN IKUSPEGI OROKORRA.....	12
3.1. DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK	12
3.2. BERDINTASUNeko UDAL POLITIKAK	15
4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA: DAUDEN DATUAK	17
4.1. GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAK ETA KUADRILLAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEK ESKAINITAKO DATUAK	17
4.2. SATEVI-K EMANDAKO DATUAK.....	21
5. BIKTIMAK: INDARKERIA EGOERATIK IRTETZEKO BIDEAN DITUZTEN ZAILTASUN ETA LAGUNTZAK	22
5.1. ARABAKO LANDA-GUNEAN INDARKERIARI AURRE EGITEKO DAUDEN ARAZOAK	26
5.2. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN ESKU-HARTZE PSIKOSOSIOHEZITZAILEA ETA AKONPAINAMENDU SOZIALEKO ZERBITZUA	30
6. KUADRILLAKO ETA UDALERRIETAKO LANGILE POLITIKOEN IRITZIAK	33
6.1. KUADRILLAKO INDARKERIA MATXISTA ARAZOAREN BALORAZIOA.....	33
6.2. BIKTIMEI EMANDAKO ARRETA ETA KOORDINAZIO INSTITUZIONALAREN GAINEKO BALORAZIOA.....	35
7. KUADRILLAKO ETA UDALERRIETAKO LANGILE TEKNIKOEN IRITZIA	37
7.1. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK.....	37
7.2. OSASUN LANGILEAK.....	40
7.3. ERTZAINZA.....	44
7.4. PREBENTZIO ETA SENTSIBILIZAZIO ZERBITZUAK.....	50
7.5. IKASTETXEAK.....	55
7.5.1. IKASTETXEEK INDARKERIA MATXISTAREN INGURUAN DUTEN IRITZIA.....	57
8. KUADRILLA ETA UDALERRIETAKO ELKARTEEN IRITZIA	59
8.1. LAMINGORRIAK TALDE FEMINISTA	59
8.2. GURASO ELKARTEAK (AMPAK)	62
8.3. AGUAKE ELKARTEA.....	65
8.4. "ASOCIACIÓN CULTURAL DE LA MUJER CAMPEZANA" ELKARTEA.....	66
8.5. INTERESEKO BESTE AGENTE BATZUK.....	67
9. JARRERA ESKALEN EMAITZAK	68
9.1. SEXU ETA ADINAREN ARABERA SAILKATUTAKO ERANTZUN OROKORRAK	69
9.2. IRITZI POLEMIKOAK.....	71
9.3. MATERIAREN EZAGUTZA	75
10. ONDORIO ETA AHOLKUAK	78
10.1. ONDORIOAK.....	78
10.2. AHOLKUAK.....	81
ANEXO 1. ELKARRIZKETATUTAKO JENDEA ..	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
ANEXO 2. IRITZI ESKALA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

FITXA TEKNIKOA

Ekintzaren eskatzailea	Arabako Foru Aldundia. Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzua
Ekintzaren helburua	Diagnostikoa egitea, Aiarako Kuadrillan ematen den indarkeria matxistaren egoerari buruz
Burututako lana	Diagnostikoaren dokumentua
Parte hartzaileak	<ul style="list-style-type: none"> - Kuadrillako langile teknikoak - Udal langile teknikoak - Kuadrillako ordezkari politikoak - Udal ordezkari politikoak - Osasun langileak - Hezkuntza langileak - Elkarteen sarea - Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen kolaborazioa - Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langile teknikoak - Genero indarkeriaren biktimen Zerbitzu Psikosoziohezitzailea, Hezilan-ek ematen duena - Intereresezko beste eragileak
Erabili diren teknikak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentuen berrikuspena - Elkarrizketa pertsonalak eta talde elkarrizketak
Lanaren arduraduna	<p>Koordinazioa: Norma Vázquez eta Izaro López de Lacalle</p> <p>Kanpo lana: Izaskun Solagaistua y Jone Gurrea</p>

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA 2017

SARRERA

Diagnostiko hau, Foru Aldundiko IV Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Planean (2016-2017) barneraturik dagoen hirugarren ardatzean kokatzen da; bere lehen atalean, Arabako Lurralde Historikoa osatzen duten Kuadrilletan dagoen indarkeria matxista egoera aztertzeko diagnostiko bat egiteko beharra azpimarratzen da.

Ildo beretik jarraituz, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Kooperazio eta Kulturartekotasun sailak, Sortzen Aholkularitzari diagnostiko hau burutzeko eskatu zion; honen bidez, Kanpezu- Arabako Mendikatea Kuadrillak indarkeria matxistaren prebentzio eta arreta arloetan dituen beharrian zehatzei aurre egiteko politika publikoak garatzeko.

Jarraian, Kanpezu- Arabako Mendikatea Kuadrillako udalerrri ezberdinetan antzemandako egoera azalduko dugu. Ebaluazio hau gauzatzeko behar izan dugun informazioa bakarkako eta taldekako elkarrizketak burutuz eskuratu da; horretarako, pertsonal politikoak, teknikoak, eta saiheste eta arrera lanetan diharduten beste agente ezberdinak eta sare asoziatiboa elkarrizketatu dira.

Sortzen Aholkularitzaren lan-taldeak, diagnostiko hau jorrazteko elkarlanean aritu direnei eta parte-hartu dutenei eskerrak eman nahi dizkie; pertsona hauen esperientzia ezberdinei eta iritziei esker lortu baitugu Kanpezu- Arabako Mendikateko egoera hobeto ezagutzea. Horrez gain, aipamen berezi bat egin nahi diogu Lamingorriak talde feministari, Kuadrillan berdintasuna eskuratzeko eta genero indarkeria ezabatzeko ezinbesteko lana ari baitira egiten.

Sortzen Aholkularitzaren lan-taldea
2017ko ekaina

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA 2017

1. METODOLOGIA

Diagnostiko hau lantzeko metodologia mistoa erabili da: alde batetik, datuak eskuratzeko metodologia kuantitatiboa erabili da; eta bestetik, Kuadrillako zerbitzu ezberdinen iritzi pertsonala islatzeko metodologia kualitatiboaz baliatu da.

Prozesuari hasiera emateko, Arabako Foru Aldundiko, udalerrietako eta Kuadrillako pertsonal politiko eta teknikoarekin elkartu ginen; bertan, diagnostikoaren helburuak eta hau aurrera eramateko egin beharreko prozesua eztabaidatu ziren, eta aldi berean, sortu ziren zalantza ezberdinei erantzun zitzairen.

Iritzi eta ekarpen ezberdinak eginez parte-hartuko zuen pertsonala Kuadrillako Berdintasun teknikariak eta Sortzen Aholkularitzako lan-taldeak hautatu zuen. Banakako eta taldekako 20 elkarrizketa burutu ziren, eta bertan, hezkuntza zentroetako, Gizarte Zerbitzuetako Oinarrizko Unitateko, elkarte ezberdinetako, osasun zentroetako, pertsonal politikariari, Ertzaintzako eta beste agente batzuetako 39 pertsoneri elkarrizketatu ziren guztira; horren bidez, zerbitzu ezberdinen funtzionamenduari buruzko informazioa, indarkeria egoerak identifikatzeko dituzten adierazle ezberdinak, emakume biktimei arrera emateko izan dituzten zailtasunak, eta emakumeen aurkako indarkeria saihesteko eta behar bezalako arrera emateko beharrezko diren udal politikei buruzko proposamenak bildu dira. 1. Eranskinean azaltzen dago elkarrizketatutako pertsona guztien zerrenda.

Antzeko diagnostikoak burutu diren gainerako Kuadrilletan bezala (Añana, Gorbeialdea eta Aiara), hemen ere ezin izan da zerbitzu eta baliabide ezberdinetan arreta jaso duten emakumeak elkarrizketatu, ondorioz, genero indarkeria jasan dutenen biktimentzako Esku-hartze Psikosoziohezitzailea eta Akonpainamendu Sozialeko Zerbitzuari (Helizan) egindako elkarrizketa hartu da aintzat, eta aldi berean, 2009an Argituz-ek egindako honako ikerketa hau ere kontutan hartu da: *Arabako landa-eremuko emakumeen esperientzietan izandako beharrianak, oztopoak eta praktika onak genero indarkeriatik irtetzeko ibilbideetan.*

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (IFBS-ek), Segurtasun Zuzendaritzak, SATEVI-k¹ eta Gizarte Zerbitzuetako Oinarrizko Unitateak eman dizkigute zerbitzu eta baliabide ezberdinetan artatutako emakumeen datuak.

Horrez gain, Kuadrillako eta Udaletxeetako web-guneen bidez ere informazioa bildu da, eta baita ere, Red Kuorum-ek emandako formakuntza jarraituz egindako Likerteko bi eskala hartu dira aintzat, bata pertsonal teknikarena, eta bestea, emakumeena. Eskala hauek pertsonen jarrera, jokaera eta jakintzak neurtzen dituzte baieztapen batzuen bidez, kasu jakin honetan, indarkeria matxistaren inguruko baieztapenen bidez.

Kanpo-lanaren bidez eskuratutako materiala sistematizatu egin zen, eta partehartu edota lagundu zutenekin eztabaidatzeko zirriborroko informe bat burutu zen, horrela, pertsona hauen ekarpenak ere barneratu ahal izateko.

2. KONTZEPTU ETA TERMINOLOGIA MARKOA

Feminismotik ikasi dugu, errealitateari izena emateak, hau azalratzea dakarrela. Emakumeen aurkako indarkeria izendatzeko modu egokiaren gaineko eztabaidek mahai gainean jarraitzen dute, eta ez dirudi hau bukatuko denik. Hortaz, beste gauza askoren artean, izendatzeko moduak ikuspuntu politiko bat duela dirudi, eta baita ere, zenbat eta gehiago landu gaia orduan eta zailagoa dela ematen du.

Emakumeen aurkako indarkeriaren gain nomenklatura proposamen ugari egon dira: kontzeptu batzuek harrera hobetua izan dute, beste batzuek nazio mailan emandako egoerei erantzun bat emateko erabili dira; eta batzuk erakundeek onartutakoak izan diren bitartean, beste batzuek ez dute garrantzi handirik izan. Askotan kontzeptuen arteko nahaste bat egoten da, hau erakundeek (erakunde nazionalak, estatu maiakoek edo nazioartekoek) kontzeptu berberari eznahi ezberdinak ematen dietelako gertatzen da.

Hortaz, atal honetan, lortutako datuak hobeto ulertu ahal izateko kontzeptuen glosario bat ezartzeak berebiziko garrantzia duela deritzogu, honen bidez, erabiltzen diren kontzeptuen atzean dauden ideiak hobeto ulertuko ditugu.

¹Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Eusko Jaurlaritzaren Telefono bidezko Arreta Zerbitzua.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Nazioartean, Nazio Batuen Erakundeak, emakumeen aurkako indarkeriaren zergatiak, formak eta munduan dauden egoera ezberdinak azaltzen dituen hainbat deklarazio eta ikerketa ditu. Nazio Batuen Erakundeak 1992an burutu zuen bere lehen adierazpena, 1992/01/29ko CEDAWko 19^o AHOLKU GENERALAREN² bidez, zeinak honako hau adierazten duen:

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: emakumeek, euren eskubide eta askatasunak, gizonetako egiten duten bezala, gozatzeko aukera galarazten edo oztopatzen duen bereizkeria da.

Aipatutako Adierazpenaren 14. artikulua honako hau zehazten du:

FAMILIARTEKO INDARKERIA: emakumeen aurkako indarkeria modu maltzurrenetakoa da honako hau. Gizarte guztietan ematen da. Familiarteko harremanean, edozein adinetako emakumeek mota orotako indarkeria jasaten dute, hala nola, lesioak, jazarpenak, edota bestelako indarkeria sexual motak, indarkeria mentala etab., eta hauek, bere horretan jarraitzen dute jokoera tradizionalen eraginez. Emakume askok dependentzia ekonomiko bat izaten dute, eta hori dela eta, indarkeria pairatzen jarraitzea beharturik ikusten dute euren burua. Gizonek familia barnean dituzten erantzukizunak beregain ez hartzeak indarkeri eta hertsadura mota bat dagoela adieraz dezake. Indarkeria honek, emakumeen osasuna kaltetzen du, eta horrez gain, bizi familiar eta publiko bat garatzeko gaitasunak murrizten dizkie.

Hurrengo urtean, Nazio Batuen Erakundearen Asanblea Orokorra³ burutu zen, eta bertan honako hau definitu zen:

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA honako hau da: Sexu femeninokoa izate hutsean oinarritutako indarkeria da, zeinaren bidez, emakumei min edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologiko bat eragin daitezkeen; besteak beste, bai bizi pribatuan eta bai publikoak eman daitezkeen mehatxuak, bortxaketan edo askatasuna murriztea izan daitezke. *Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Adierazpena. 1993ko abenduaren 20ko 48/104 Asanblea Orokorren Ebazpenaren 1. Artikulua, Nazio Batuak.*

² http://www.ipu.org/splz-e/cuenca10/cedaw_19.pdf

³ http://www.aulaviolenciadegeneroenlocal.es/consejoscolares/archivos/declaracion_sobre_la Eliminacion_de_la_violencia_contra_la_mujer.pdf

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

2009ko azaroan, United Nations Secretary-Generals' s Campaign to end violence against Women⁴-ek honako honen inguruan hitz egiten du:

Bikotekidearen eskutik jasandako indarkeria: Mundu mailan, emakumeek jasaten duten indarkeria orokorra beraien bikotekidearen eskutik jasaten dutena da, bertan, kolpeak, harreman sexualak izatera derrigortzea eta beste jazarpen mota asko ematen dira.

Nazio Batuak, 2009ko azaroa.

Europako Kontseiluaren emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria saihesteko eta aurre egiteko Hitzarmena (Istanbuleko Hitzarmena), 2011ko maiatzaren 11an sinatu zen Istanbulean eta 2014ko abuztuaren 1ean sartu zen indarrean Espainian (Hitzarmenaren 75.artikuluaren ezarrita dagoen bezala, hamar herrialdek gutxienez hau berretsi eta gero). Hitzarmena BOE-n argitaratu zen 2014ko ekainaren 6an⁵.

Aipatu berri dugun Hitzarmena, Europa mailan emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria lantzerako orduan, loteslea da; eta horrez gain, giza eskubideak lantzen dituen irismen handieneko nazioarteko hitzarmena da.

Hitzarmen honen arabera, honako hau ulertzen da:

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: giza eskubideen urraper bat da, eta horrez gain, emakumeen aurkako diskriminazio bat da; eta generoan oinarritutako indarkeriak emakumeei kalte edo sufrimendua eragiten die edo eragin ahal diete. Indarkeria izaera fisikokoa, sexuakoa, psikologikokoa edo ekonomikokoa izan daiteke, bertan barneratzen direlarik bai bizi pribatuan eta bai publikoak eman daitezkeen mehatxuak, bortxaketan edo askatasun murrizketak.

ETXEKO INDARKERIA: senitartekoen artean edo etxebizitzan edo ezkontideen artean edo bikote edo bikote oien artean ematen den indarkeria fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomiko oro. Ez da kontuan hartzen ea erasotzaileak eta biktimak etxebizitza elkarganetzen duten edo elkarbanatu izan duten.

⁴ http://www.un.org/es/events/endviolenceday/pdfs/unite_the_situation_sp.pdf

⁵ “Instrumento de ratificación del Convenio del Consejo de Europa sobre prevención y lucha contra la violencia contra la mujer y la violencia doméstica, hecho en Estambul el 11 de mayo de 2011”
<http://www.boe.es/boe/dias/2014/06/06/pdfs/BOE-A-2014-5947.pdf>

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

GENERO: emakume eta gizonei gizarte bakoitzean ezartzen zaizkien jokabide, ekintza, rol eta abileziak dira, eta gizarteak gizon edo emakume izate hutsagatik aipatu beharri ditugun ezaugarriak izan behar dituzula defendatzen du.

GENEROA DELA ETA EMATEN DEN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: emakumeei emakume izateagatik eragiten dien edo nagusiki hauei eragiten dien indarkeria oro da.

BIKTIMA: emakumeen aurako eta etxeko indarkeriaren jokaera espezifikoak jasaten dituen pertsona fisikoa da.

EMAKUMEA: 18 urte baino gazteagoak diren neskek ere barneratzen dira.

Estatu mailan, genero indarkeriaren aurkako babes neurri integralak ezartzen dituen Lege Organikoan⁶ dakarrena azalduko dugu jarraian.

GENERO INDARKERIA: indarkeria fisiko eta psikologikoko egintza oro, eta baita, askatasun sexualaren aurkako jazarpenak, mehatxuak, bortxaketak edo askatasun murrizpenak. *Genero indarkeriaren aurkako babes neurri integralen Lege Organikoaren 1.3. artikulua, 2004ko abenduaren 28an BOE-n argitaratua.*

2015ko ekainaren 23an BOE-n, ekainaren 22ko *haurtzaroaren eta nerabezaroaren babes neurrien sistemaren aldaketaren 8/2015 Lege Organikoa* argitaratu zen⁷, hau, 2015eko abuztuaren 12an sartu zen indarrean. Lege honek, besteak beste, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan aldaketak eragin zituen, bere 1.artikuluan **adin txikiak ere indarkeriaren biktima zuzen** bezala barneratuz.

Azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren bidez Kode Penaleko VIII. Tituluko askatasun sexualen aurkako delituak⁸ barneratzen dira, bertan besteak beste, honako hauek ageri dira:

⁶ <https://www.boe.es/boe/dias/2004/12/29/pdfs/A42166-42197.pdf>

⁷ <https://www.boe.es/boe/dias/2015/07/23/pdfs/BOE-A-2015-8222.pdf>

⁸ <https://www.boe.es/boe/dias/1995/11/24/>

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

INDARKERIA SEXUALA: emakumeek harreman sexualak izatera behartzen dituen indarkeria da (intimidazio, bortxaketa –xantaia edo mehatxua- edo beste mekanismo batzuk, zeinaren bidez, emakumearen borondatea ezabatu edo mugatzen den). Indarkeria sexuala dagoen bakoitzean, indarkeria psikologikoa ere egoten da.

Bi indarkeria mota bereizten dira:

SEXU ERASOAK: Pertsona baten askatasun sexualen aurka indarkeriaz edo beldurrarazte bidez burutzen den ekintza oro; indarkeriatzat hartzen da indar fisikoz burutzen dena, eta kalte larri bat jasateko beldurra eragiteko burutzen den egintza oro beldurraraztetzat hartzen da. Sexu erasorik ohikoena jazarpena da, hau gorputz atalak edo objektuak alutik, uzkitik edo ahotik sartzean datza (objektuen kasuan soilik lehengo bi gorputz ataletatik sartuz gero hartuko da jazarpentzat).

SEXU ABUSUAK: Indarkeria edota beldurrarazterik gabe egiten dira. Hemen barneratuko lirateke, euren borondatezko gaitasuna edota intelektuala mugatua izanagatik, baliozko onespenerik eman ezin duten pertsonen eginiko abusuak

SEXU JAZARPENA: "Sexu jatorria duen portaera oro, hitzezko nahiz fisiko, pertsonaren duintasunaren kontra egiteko helburua duena, edo hori eragiten duena, bereziki, ingurune larderiazkoan, apalgarrian edota iraingarrian egiten bada". *3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerako (2017ko urtarrilaren 1 arte indarrean dagoena.). I Titulua, 7. artikulua.*

SEXUAGATIKO JAZARPENA: "Pertsona baten sexuaren arabera egindako portaera oro, bere duintasunaren kontra erasotzeko asmoa duena edo hori eragiten duena, eta ingurune larderiazkoa, apalgarria edota iraingarria sortzen duena". *3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerako (2017ko urtarrilaren 1 arte indarrean dagoena.). I Titulua, 7. artikulua.*

Autonomia mailan, emakumeen aurkako indarkeria definitzeko beste modu bat aurki dezakegu:

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA: Kalte fisikoak, sexualak, psikologikoak edota emakumeei bestelako sufrimenduren bat eragiten dieten edo eragin ahal

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

dioten sexuagatiko indarkeria oro; egintza hauek burutzeko bai arlo publikoan edota pribatuan erabiltzen diren mehatxuak, bortxaketan edo pertsonaren askatasuna murrizten duten ekintzak ere indarkeria sexistatzat hartzen dira. *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako, 4/2005 otsailaren 18ko Legea. VII. atalaren, 50. Artikulua, Eusko Jaurlaritza*⁹.

Bestelako indarkeria matxistak, hala nola, eskola jazarpena edo ziberjarazpena, horrela definitzen ditu:

BULLYING EDO ESKOLA JAZARPENA: "Ikasle bat eraso da edo biktima bihurtzen da beste ikasle batek edo batzuek gauzatutako ekintza negatiboak pairatzen dituenean, behin eta berriro eta denbora jakin batean zehar" (Olweus, 1998). *Eskola jazarpene kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida, Eusko Jaurlaritza, 2007*¹⁰.

ZIBERJAZARPENA EDO ZIBERBULLYING: "Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT delakoak) erabiliz, eskolakideek beste bati edo batzuei eginiko xaxatze errepikatua; horien ondorioz, biktimek beren bizi-kalitatea murrizten duten ondorioak pairatzen dituzte". *Ziberbullying kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida*¹¹, EMICI, 2010. *Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak babestua*.

Beste euskal erakunde batzuek, honako terminologia erabiltzen dute:

INDARKERIA MATXISTA: Sexu/genero/sexualitate sistemaren heteronormaltasuna betetzen ez duten gorputzen aurkako kontrol, eraso, ukapen, inposaketa zuzen, estruktural eta sinbolikoak; hala nola, berau transgreditu gabe ere, harremanetan era inplizitu batean botere erlazioa ezartzen da eta honen kalteak emakumezkoek pairatzen dituzte. Bi kasuetan indarkeria matxista haurtzarotik adierazten da eta bizitza osoan zehar mantendu. Indarkeria matxistak bere baitan hartzen du indarkeria sexista, eta baita beste indarkeria mota batzuk ere, hala nola transfobia, lesbofobia eta homofobia. *Gipuzkoako 2/2015 gizon eta emakumeen berdintasunerako Foru Araua. V. Atala, 51.1. artikulua*.

⁹ <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf>

¹⁰ http://www.euskadi.eus/gobiernovasco/contenidos/informacion/dia6_erasoak_agresiones/es_erasoak/adjuntos/tratu_txarrak_c.pdf

¹¹ <http://www.juntadeandalucia.es/educacion/webportal/ishare-servlet/content/05f44cc5-d0e9-4ab4-a259-7aa0dc03d524>

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

VIOLENCIA SEXISTA: Indarkeria sexista dira emakumeen aurkako kontrol, eraso, ukapen eta inposaketa zuzen, egiturazko eta sinboliko mota guztiak; egintza hauek sexu-genero-sexualitate sistema heteronormatiboan ezarritako gizon-emakumeen hierarkia eta ezberdintasun egoera baten baitan ematen dira. *Gipuzkoako 2/2015 gizon eta emakumeen berdintasunerako Foru Araua*¹². V. Atala, 51.2. artikulua.

3. BIZTANLERIAREN ETA KUADRILLAKO BERDINTASUN POLITIKEN IKUSPEGI OROKORRA


3.1. Datu soziodemografikoak

Kanpezu- Arabar Mendikateko Kuadrilla Arabako zazpi eskualdetako parte da. Bere eskualdeko hiriburua Santikurutze Kanpezu da, non Kuadrillaren egoitza nagusia dagoen.

Eskualdea Arabako hego-ekialdean kokatzen da eta 534,87 km²-ko azalera dauka. 6 udalerriz osaturik dago: Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezuko Santa Kruz, Harana, Lagran eta Urizaharra. Guztira, 47 herrigunez osaturik dago eta 39 udalbatzez osaturik dago.

Gaur egun, Kuadrillak **2.982**¹³ biztanle ditu, **1.310** emakume eta **1.672** gizon, horrela banaturik:

1. grafikoa eta 1. taula. Santikurutze Kanpezu - Arabako Mendikateko biztanleriaren banaketa



Udalerria	Biztanleria
SANTIKURUTZE KANPEZU	1.069
ARRAIA-MAEZTU	712
BERNEDO	526
URIZAHARRA	270
HARANA	242
LAGRAN	163

Jatorria: 2015eko INEko datuak kontuan hartuz, garapen propioa

¹² <http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/normativa/docs/0001052c.pdf>

¹³ 2015eko INEko datuak.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**


Azter dezakegun bezala, Santikrurutze Kanpezu udalerrian kokatzen da Kuadrilla osoko biztanleriaren herena; udalerrri berean, Arraia-Maeztu eta Bernedok Kuadrillako biztanleria osoaren %78a osatzen dute, gainerako hirurek, aldiz, biztanle-dentsitate baxuagoa du

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Jarraian Kuadrillako biztanleriaren datuak sexu eta adinaren arabera banaturik aztertuko ditugu.


2. grafikoa. Santikurutze Kanpezu- Arabako Mendikateko biztanleria osoa sexu eta adinaren arabera



Jatorria: 2015eko INEko datuak kontuan hartuz, garapen propioa

Kuadrillako biztanleria 35-39 urtez gerotik areagotu egiten da, eta 65 urte edo gehiago dutenen artean kontzentratzen da gehien bat (%27a). Bi adin tarte hauen artean biztanleriaren %75,5a osatzen dute. Adin banaketa honez gain, baita ere, esanguratsua da sexu arteko banaketa; izan ere, biztanleriaren %44a emakumezkoa da eta %56a gizonezkoa.

3. grafikoa eta 2. taula. Santikurutze Kanpezu – Arabako mendikateko biztanleria jatorriaren arabera



Jatorria: 2015eko INEko datuak kontuan hartuz, garapen propioa

Udalerrriak	Guztira		
	Biztanleria	Bertakoa	Atzerritarra
SANTIKUTUTZE			
KANPEZU	1.069	1.005	64
ARRAIA-MAEZTU	712	686	26
BERNEDO	526	506	20
URIZAHARRA	270	262	8
HARANA	242	241	1
LAGRAN	163	162	1

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Kuadrillako atzerritar kopurua, biztanleria osoaren %4a da; hau da, 2.982 biztanletik 120 atzerritik etorritakoak dira, gehien bat Europar Batasuneko herrialdeetatik eta Ipar Afrikatik, baina badira beste batzuk ere, ehuneko txikiago batean, Latinoamerikatik eta Afrika erdialdetik irizitakoak ere badaude. Atzerritarren gehiengoa biztanleria handiena duten udalerrietan bizi da; hau da, Santikurutze Kanpezun, Arraia-Maetzun eta Bernedon, izan ere, Kuadrilla osoko atzerritarren %90a bizi da hiru udalerrri hauetan.

Kanpezu- Arabako Mendikatea Kuadrillak oso azalera handia biltzen du, baina aldiz, biztanleria oso txikia eta zaharkitua dauka; hau, 6 udalerritan banatzen da, eta udalerrri hauek beste herri batzuek osaturik daude, non, askotan, oso jende gutxi bizi den. Gainera, ez dago atzerritar askorik, eta dauden apurrak herri handienetan bizi dira. Aurretik aztertu denaren arabera, Kuadrillako biztanleria oso homogeneoa da, eta bertan, biztanleria baxua duten herrietan bizi diren 60 urte baino gehiago duten jatorriko gizon-emakume helduak nagusitzen dira, eta gainera, gune batzuetan isolamendu maila altua dago.

3.2. Berdintasuneko udal politikak

Gaur egun, Kanpezu- Arabar Mendikateko Kuadrillak Berdintasun Teknikari bat dauka; Emakundek, 2017an I Kuadrillako Berdintasun Plana burutzeko diru-laguntza bat eman die. Berdintasun politikak aurrera eramateko pertsonala eta plan zehatz bat izateak Kuadrillan aurrera pauso handi bat suposatzen du.

Udalerriek (handiek izan ezik) ez dute berdintasun politika askorik garatu eta are gutxiago indarkeria matxistaren aurka egiteko politikak. Santikurutze Kanpezun 2015eko gizon eta emakumeen arteko Berdintasun Ordenantza¹⁴ burutzeko diagnostiko bat egin zen; bertan, genero indarkeriaren aurkako sentsibilizazio eta prebentzio kanpainak eta ekintza edota programa ezberdinak aurkezten ziren, bai ikastetxei zuzendutakoak, bai udalerritari eta emakumeei zuzenduak.

Gainera, aipatu berri dugun diagnostikoak Kanpezuko Udaletxeko I Berdintasun Plana sustengatu zuen; honetan, udalak emakume biktimei arrera eskaintzen dieten zerbitzuekin izango duen koordinazioa bultzatu eta hobetzea aurreikusten da, horrez gain, Santikurutze Kanpezuko gizadia emakumeen aurkako indarkeriaren kontra sentsibilizatzea.

¹⁴ <http://www.campezo.eus/wp-content/uploads/2015/10/ORDENANZA-IGUALDAD-castellano.pdf>

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA 2017

Berdintasuna landu duen beste udalerrietako bat Arraia-Maeztu izan da. 2016an gizon- emakumeen arteko berdintasun diagnostiko bat burutu zuten eta bertako Gizarte Langileak genero indarkeriaren inguruko formakuntza jaso du.

Bi udalerrri hauetan, indarkeria matxistaren aurkatzeko beste egintza batzuk ere egin dira; hala nola 2017ko musika jaialdian Kanpezu- Arabar Mendikateko Kuadrillak eta Arraia-Maeztuko udalak "Lamingorriak" talde feminista babestu zuten euren burututako *Sexismo, homofobia, transfobia edo bestelako edozein jarrera iraingarririk gabeko gunea* flyerrean.

2016an Arraia-Maeztuko Udaletxean autodefentsa feminista tailer bat antolatu zen; non, agresio sexisten jaia landu eta bizitako esperientziak elkar-banatu ziren.

Santikurutze Kanpezun, 2016ko martxoaren 8a ospatzeko, ikastetxeekin elkarlanean, ikasleek burutzen zituzten kartel digitalen lehiaketa bat antolatu zuten, eta irabazlearen kartela Udaletxeko web-gunean argitaratu zen.

Emakumeen eta
gizonen arteko
BERDINTASUNA



Nisrinek egina

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA: DAUDEN DATUAK

Atal honetan ageri diren datuek Kanpezu- Arabar Mendikatean dagoen indarkeria matxista osoaren atal bat soilik adierazten dute; izan ere, genero indarkeriari edo etxeko edota familiarteko indarkeriari zuzendutako errekurtso jakin batzuetan dauden kasuak soilik hartu dira aintzat, honako errekurtso hauetakoak hain zuzen ere: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, Ertzaintza, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzua (SATEVI) eta Santikurutze Kanpezu- Arabako Mendikatea Kuadrillako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.

4.1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Kuadrillako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskainitako datuak

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (IFBS) Arabako Foru Aldundiari atxikitako erakunde autonomo bat da; berari dagokio Arabako Lurralde Historikoan dauden gizarte zerbitzuen kudeaketa lana. Oinarrizko Gizarte Zerbitzu espezializatuak edo intentsitate altuko arreta behar dutenak izaera orokorrekoak dira, bestalde, udalerriek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen (SSB) eskuduntza dute.


IFBS-ek genero indarkeria jasan duten emakumeei, honako baliabide hauek eskaintzen dizkiete: Esku-hartze psikohezitzailea eta laguntza sozialeko zerbitzua, Arreta psikosozial espezializatua (emakume eta haur biktimentzako eta baita, erasotzaile eta zeharkako biktimentzako ere), Harrera etxeak eta Genero indarkerian espezializatutako arreta soziojuridikoa.

IFBS-ak eskainitako datuak aztertu egin dira; horrela, arretan hartutako biktima kopuru osoa atera ahal izateko. 2013-2015 urte bitartean, Kuadrillako **5 emakumek** jaso dute arreta IFBS-ek eskaintzen dituen zerbitzuren batean (gutxienez).

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

**4. Grafikoa. 2013 eta 2015ean Santikurutze Kanpezu- Arabako Mendikatekoak diren eta IFBS-ak arretan hartu dituen emakume kopuru osoa
Z=5**



Jatorria: IFBS-ko datuak kontuak hartuz norberak burutua

2015ean IFBS-ak artatu dituen Kuadrillako emakume kopurua areagotu egin zela azter daiteke. Jarraian, zerbitzu espezializatuek arreta eskaini zieten emakumeen ezaugarri batzuk azalduko ditugu.

3. Taula. IFBS-eko zerbitzu espezializatuek 2013-2015 urte bitartean artatu dituzten emakumeak euren ezaugarrien arabera banaturik

	<18	30-40	70+
Adina	1	2	2
	Tokikoa	Atzerritarra	
Jatorria	3	2	
	Genero indarkeria	Etxeko indarkeria	
Indarkeria mota	2	3	
	1-4 urte	5-10 urte	
Tratu txarren denbora*	2	1	
	Bai	Ez	
Salaketa	2	3	
	Bai	EZ	

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA**

2017

Kautelazko neurriak**	1	3	
	Arreta psikosoziala	SIPSEAS***	
Erabilitako baliabideak	4	1	

Jatorria: IFBS-ko datuak kontuak hartuz norberak burutua

* Ez dugu 2 emakumek jasandako tratu txarren iraupenaren berririk

**Ez dugu salaketa baten berririk

*** Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Zerbitzu Espezializatua

Jarraian Santikurutze Kanpezu- Arabako Mendikateko Kuadrillako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen datuak azalduko dira; datu hauek, Kuadrillako Gizarte Langileak eman dizkigu.

4. Taula. 2013-2016 urte bitartean Kuadrillako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek artatutako indarkeriaren biktima izan diren emakumeak

N=9

Indarkeria mota	2013	2014	2015	2016	Total
Genero indarkeria	0	1	1	4	6
Etxeko indarkeria	0	2	1	0	3

Jatorria: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek emandako datuak kontuan hartu eta norberak garatua

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak dira herritarrek gizarte zerbitzuen sistema publikoarekin duten lehen harreman puntua, eta Kuadrillako edozein udalerritan bizi den eta laguntza soziala edota dauden baliabide ezberdinei buruzko informazio eta orientazioa nahi duen herritar orori dago zuzendua. Zerbitzu honetara 9 emakume hurbildu dira; 6 genero indarkeriagatik eta 3 etxeko indarkeria edo familiarterko indarkeriagatik.

Aipatu beharrekoa da, 2016an Arraia-Maeztuko diagnostikoa burutzeko Gizarte Ongizateetik jasotako datuak (hau da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek artatutako kasuen datuak) eta diagnostiko honetarako Gizarte Langileak eskaintzen dizkigun datuak ez datozela ba

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Auditoretza: Farapi koop.

2016ko Arraia-Maeztuko diagnostikoko datuak

Taula: Genero indarkeria. Arraia-Maeztu,

Urtea	Genero indarkeria
2015	1
2014	3

2014-2015

Jatorria: Arraia-Maeztuko Udaletxea, 2015

2017 ko Kuadrillako diagnostikoko Arraia-Maeztuko datuak


Urtea	Genero indarkeria
2015	1
2014	0

Jatorria: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen datuak kontuan hartuz, garapen propioa

Kontuan izanik Kuadrillako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duen Gizarte Langile bakarra dagoela, datu hauek jatorri berbera izan beharko lukete (baina ezin dugu hau ziurtatu). Hots, datuen ezberdintasun hauek kasuen erregistro zehatz eta zurrun bat ezartzeko beharra dagoela adierazten digu, honen bidez, egondako kasu kopurua zehazki jakin ahal izateko.

Gráfica 5. Zerbitzu Especializatuak (IFBS-k) eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek artatutako emakume kopurua (2013-2015)

Z=8



Jatorria: IFBS eta SSB-ren datuak kontuan hartuz norberak garatua

2013-2015 urte bitartean IFBS eta SSB-ra jo zuten emakume kopurua aintzat hartuz eta birritan erregistratuik daudenak kenduz, guztira **8 emakumek** jo dutela zerbitzu publiko batera laguntza eske ondorioztatu dezakegu.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

4.2. SATEVI-k emandako datuak

SATEVI biktimei, familiako kideei, biktimaren ezagunei eta profesionalei zuzenduta dagoen Eusko Jaurlaritzako telefono bidezko arreta espezializatuaren zerbitzua da, hau, urteko 365 egunetan 24 orduz dago.

5. Taula. SATEVI-k 2013tik 2016ko azarora jasotako dei kopuru osoa

Udalerrria	2013	2014	2015	2016 Az.
ARRAIA-MAEZTU	4	0	6	0
SANTIKURUTZE KENPEZU	0	0	0	25
LAGRAN	0	0	0	0
URIZAHARRA	0	0	0	0
HARANA	0	0	0	0
GUZTIRA	4	0	6	25

Jatorria: SATEVI-ko datuak kontuak hartuz norberak garatua

Datuen arabera, azken lau urteetan 35 dei egon dira guztira. 2016an dei hauetatik 25 eman izanak arreta deitu zigunez informazio hau luzatu genien Gizarte Langileari eta SATEVI-ko erantzuleari. Azken honek, adierazi zigun kasu hauetatik batek soilik behar izan zuela esku-hartze txiki bat, eta zerbitzuak berak lagundu ziola emakumeari ibilbide osoan zehar esku-hartzea bukatutzat eman arte.

SATEVI-k ez dionez arreta emakumeei soilik eskaintzen, ezin dugu jakin ea zenbat emakumek erabili zuten zerbitzua, baina Kuadrillan zerbitzu honi ematen zaion erabilera kopurua eta erabilgarritasuna jakiteko balio digu.

4.3. Ertzaintzak emandako datuak

Jarraian, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak emandako datuak ageri dira, bertan, Ertzaintzak urtero irekitzen dituen espediente kopurua ageri da, hau da, Genero indarkeria/etxeko indarkeria unitateak salaketa bat eta gero irekitzen dituen espedienteak; horrela, kasuari arreta eta jarraipena eman ahal izateko. (Hau, Ertzaintzak urtean zehar irekita mantentzen dituen espedienteetatik bereiztu behar da; bertan, aurreko urteetako kasuak ere barneratzen baitira).

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

6. Taula. Ertzaintzak 2013tik 2016ko irailerarte irekitako espediente berri kopurua¹⁵; biolentzia eta biktimizazio motakoak¹⁶

Indarkeria mota	2013	2014	2015	2016 Ir.
ESPEDIENTEAK/ BIKTIMIZAZIOAK	E-B	E-B	E-B	E-B
BIKOTEAK/BIKOTE OILAK ERAGINDAKO INDARKERIA	0 - 0	1 - 1	1 - 2	1 - 1
FAMILIARTEKO INDARKERIA (BIKOTE/ BIKOTE OILARENA IZAN EZKIK)	3 - 3	0 - 0	0 - 0	0 - 0
GUZTIRA	3 - 3	1 - 1	1 - 2	1 - 1

Jatorria: Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzako datuak kontuan hartuta norberak egina.

2013tik-2016ko irailera bitartean Ertzaintzak 6 espediente berri ireki zituen Kuadrillan. 3 genero indarkeria kasu egon ziren; 2014 eta 2016 urte bitartean, urte bakoitzean bat egon zen eta guztira 4 biktima eragin zituen. 2013an etxeko edo familiartereko indarkeria dela eta, 3 espediente ireki ziren. Ondorengo tauletan, zerbitzu ezberdinek genero indarkeriagatik artatutako emakumeen datu orokorrak ageri dira.

5. BIKTIMAK: INDARKERIA EGOERATIK IRTETZEKO BIDEAN DITUZTEN ZAILTASUN ETA LAGUNTZAK

Ezin daiteke zalantzan jarri emakume bat zerbitzu publiko batengana laguntza eske joatearen garrantzia; nahiz eta, horrekin ez bukatu bizi duen indarkeria egoera edo bere erasotzailearekin duen harremana. Indarkeria egoera batetik irten ahal izateko, eta hartutako erabakiak eta honen ondorioei aurre egin ahal izateko, laguntza eta denbora behar dute; duten zaugarritasun emozional egoeraz gain, kontuan hartu behar da, askok dituzten eta aurre egin behar dien arazo ekonomikoak, lanekoak eta sozialak.

Indarkeria biktimak artatu dituzten zerbitzu ezberdinen datuei esker, 2013-2015 urte bitartean zenbat emakumek eskatu duten laguntza zerbitzu publikoetan kalkulatu dezakegu (urte hauetan soilik baititugu zerbitzu guztien datuak). Kalkulu hori burutzerako orduan, hurrengo kuadroetan ageri ez diren datuak ere kontuan hartu dira, baina ez dira barneratu biktimen anonimatua mantentzeko; honen

¹⁵ Urte hartan irekitako espedientei egiten die erreferentzia, espediente bat urte batzuetan aktibo egon daiteke eta.

¹⁶ Biktimizazioez hitz egiten dugunean, agresio kopuru osoari buruz ari gara, emakume bakar batek biktimizazio bat baino gehiago jaso ahal ditu eta.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

bidez, datu bikoiztuak ezabatu dira eta emakumeek jarraitu duten ibilbidea ere aztertu egin da.

Genero indarkeria

7. Taula. Genero indarkeriagatik arreta jaso duten emakumeak, hartaratu dituen zerbitzu eta urtearen arabera sailkatuz

Genero indarkeriagatik laguntza eskatzea	2013	2014	2015
IFBS	1	0	1
SSB	0	1	1
Ertzaintza	0	1	1


Jatorria: Segurtasun Zuzendaritza, SSB eta IFBS-ko datuak kontuan hartuz norberak garatua

5. grafikari egindako iruzkinean aipatu den bezala, IFBS eta SSB-ko datuak ez datoz elkarrekin bat; bien artean 2013-2015 urte bitartean 4 emakumeri eskaini diote arreta. Badakigu 2015ean IFBS-k hartaratu zuen emakumeak salaketa bat tartekatu zuela, eta hau bat dator Ertzaintzak irekitako espediente berri batekin. Hortaz, hiru zerbitzu hauek genero indarkeriagatik **5 emakumeri** eskaini zietela euren zerbitzuak ondoriozta dezakegu.

5 emakume hauek, hiru ibilbide jarraitu dituzte: poliziala, soziala (kasu honetan bai Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, bai IFBS-ko zerbitzu espezializatuek artatuak), eta mixtoa (non, salaketa bat tartekatzeaz gain, baliabide espezializatu batera ere jo duten).

Hurrengo eskemaren bidez emakume bakoitzak jarraitu duen ibilbidea azter dezakegu:

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**



Azter dezakegunagatik, emakume gehiagok (5etik 3k) jotzen dute ibilbide sozialera polizialera baino.

Etxeko edo familiarteko indarkeria

8. Taula. Etxeko/familiarteko indarkeriagatik arreta jaso duten emakumeak zerbitzu eta urtearen arabera sailkaturik

Etxeko/ familiarteko indarkeriagatik laguntza eskatzea	2013	2014	2015
IFBS	0	1	2
SSB	0	2	1
Ertzaintza	3	0	0

Jatorria: Segurtasun Zuzendaritza, SSB eta IFBS-ko datuak kontuan hartuz norberak garatua


INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Taulan azter daitekeen bezala, 2013an Ertzaintzak etxeko/familiarteko indarkeriagatik 3 espediente berri ireki zituen, baina kasu hauetako bat ere ez zuen artatu ez SSB-ek, ez zerbitzu espezializatuek (IFBS). Hurrengo urteetan zehar Ertzaintzak ez zuen beste espediente berririk ireki; aitzitik, SSB-ek eta zerbitzu espezializatuek indarkeria mota hau jasaten zuten emakumeei arreta eskaini zieten (3 emakumeri zerbitzu bakoitzean, hain zuzen ere).

Bi zerbitzuetan arreta eskainitako kasuak batuz gero, 6 kasu izango lirateke guztira, baina, 5. grafika azaltzean aipatu dugun bezala, 6 kasu hauetako bi errepikaturik daude, bata 2014an eta bestea 2015ean; hortaz, etxeko/familiarteko indarkeriagatik guztira **4 emakume** artatu dituzte SSB-ek eta zerbitzu espezializatuek.

2013-2015 bitartean etxeko edo familiarteko indarkeriagatik arretan hartutako 7 emakumeek, genero indarkeria jasan duten emakumeen joera berbera dute, eta hauek baino ehuneko handiagoan (7tik 4k) jotzen dute gizarte zerbitzuetara (oinarrizkoetara edo espezializatueta); Ertzaintzara jo beharrean (7tik 3k).



INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA 2017

Indarkeria matxista

Hiru zerbitzu publiko ezberdinetako datuak kontuan hartuz, aztertutako 3 urteetan (2013-2015) Kanpezu- Arabar Mendikateko Kuadrillako **12 emakumek** jo dutela zerbitzu hauetara ondoriozta dezakegu, 5 genero indarkeriagatik eta 7 etxeko/familiarteko indarkeriagatik.

Dugun informazioarekin ezinezkoa da jakitea ea emakume hauek ze zerbitzutara jo zuten lehenik, ezta zer nolako ibilbidea egin duten, ez esku-hartze hauek nolako emaitzak izan dituzten eta ea emakume hauei bizitako indarkeria egoeratik irteten lagundu dien.

3. atalean azertu diren datu soziodemografikoak kontuan izanik, honako hau dakigu: Kanpezu-Arabar Mendikateko Kuadrilla landa-gunea dela, eta bertako biztanleria zaharkitua eta herri txikietan kokatzen dela; honek guztiak, indarkeria egoeratik irteteko eta zerbitzu ezberdinetara jotzeko zailtasunak eragin ditzake.

Indarkeriari aurre egiten dieten emakumeen testigantzak ezinbesteko informazio iturria dira, hauen bidez, ibilbidea izan dituzten zailtasun, oztopo eta arazoak jakin ditzakegu eta. Diagnostiko hau burutzerako orduan izan dugun zailtasunetako bat Kuadrillako emakume biktimei elkarrizketak ezin egin ahal izana izan da. Hala ere, euren bizipenak azaleratzea ezinbestekoa dela deritzogu, eta horretarako, jarraian bi lan azalduko ditugu, honek ezin du elkarrizketaren hutsunea bete, baina, indarkeria jasan duten emakumeen hitza kontuan hartzeko balioko digu.

Lehenik eta behin, Argituz-ek Araban egin zuen ikerketa bat aipatuko dugu, *"Arabako landa-eremuko emakumeen esperientzietan izandako beharrianak, oztopoak eta praktika onak genero indarkeriatik irtetzeko ibilbideetan"*; eta ondoren, genero indarkeriaren biktimentzako Esku-hartze psiko-hezitzailea eta akonpainamendu sozialeko Zerbitzuari egindako elkarrizketatik ateratako ondorioak aztertuko ditugu.

5.1. Arabako landa-gunean indarkeriari aurre egiteko dauden arazoak

Argituz-ek burututako ikerketan Arabako Lurralde Historikoan bizi ziren 20 emakumeren testigantzak hartu ziren kontuak, besteak beste, Kanpezu-Arabar Mendikateko Kuadrillakoak. Ikerketa honen bidez, elkarrizketatu ziren emakumeek

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

jasaten zuten indarkeriatik **irtetzeko ibilbidean izandako oztopoak** identifikatu dira; non honako hauek nagusitzen diren:

- ❖ Genero indarkeria bat bizitzen ari direla onartzeko zailtasuna, batez ere indarkeria psikologikoa bada.
- ❖ Dependentsia ekonomikoak eta bizitzeko leku baten beharrak, askotan emakumeak indarkeria egoeratik irtetzeko ibilbidean are gehiago txirotzea eragiten du.
- ❖ Pertsonal teknikoaren, polizialaren eta osasun zentroetako langileen harreraren kalitatea, neurri handi batean arreta ematen duen langilearen interes pertsonalaren arabera dira.
- ❖ Zerbitzu ezberdinen arteko koordinazioa eta deribazioa ez da beti era eraginkorrean egiten.
- ❖ Baliabide, aukera eta egoeraren informazio falta egoten da.
- ❖ Beharrianak asetzeko, ez da segizio informatu eta enpatiko baten bidez burutzen.
- ❖ Emakumeen gehiengo bat ez da ongi trataturik sentitu auzitegietako langileengatik, batez ere, epaileengatik.

Gainera, **landa-eremuan bizitzea oso faktore esanguratsua da indarkeriatik irten diren emakumeen bizipenetan**. Emakumeen testigantzek udalerrri txikietan bizitzearekin erlazionatutako elementu komunak dituzte, baina auzokoenganako hurbiltasunak edo kontrol sozialak era positiboan edo negatiboan eragin dezakete, norbere bizipenaren arabera da hori. Emakumeen kontakizunetan behin baino gehiagotan ageri da "zer esango ote dute" horren beldurra, honek, indarkeria egoeratik irtetzea zailtzen du, isiltasuna eta ikusezintasuna areagotzen ditu. Harreman estu hauek dituzten udalerrien alde positiboa biktimari laguntasuna emateko duten erraztasuna da eta horrek irtetzeko ibilbidea errazten du eta baliabideak eskuratzeko erraztasunak sortzen ditu.

Landa-eremuan dagoen beste oztopo bat baliabideak eskuratzeko zailtasuna da; izan ere, askotan, hiriburuetan zentralizaturik egoten dira zerbitzu ezberdinak. Hori dela eta, emakumearen adinak, bere gaitasun ekonomikoak eta auto bat izateak (edo ez izateak) hiriburua babes gune bilakatzea eragin dezake edo justu kontrakoa, irtetzeko oztopoa. Honen harira, kalte eta isolamendu gehien emakume nagusiek sufritzen dute, Gasteizera garraio publiko bidez heltzeko zailtasunak baitituzte. Horrez gain, gaur egun emakume askok zailtasun ekonomikoak dituzte, beraz, garraioaren gastuek esfortzu gehigarri bat eragiten diete. Garraio

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

publikoaren arazoa, euren erasotzaileengatik banatzea erabakitzen duten emakumeen babesgabetasun ekonomikoa eta landa-gunean bizitzeak emakume askori eragiten dien aislamendu egoeraren berri jaso dugu diagnostiko hau burutzerako orduan egindako elkarrizketa batzuetan, geroago aztertuko den bezala. Hortaz, orokorrean, emakume nagusia da kaltetuen eta babesgabeen dagoen gizataldea.

Lotsa eta bakardade sentrazioa indarkeria egoeratik irteteko oztopo izaten dira. Gainera, harremana apurtzeak dakartzan ondorioen beldurrez emakume asko paralizatu egiten dira. Beldur hau hurrengo hiru egoeretan ematen da:

- Erasotzaileak geldiarazi egiten ditu adieraziz bikote harremana apurtzeak seme-alabei kalte egingo duela.
- Indarkeria handiagoa edo espero ez den erreakzio bat izateko beldurra, honek eraso bortitzago bat jasatea eragingo baitu.
- Erasotzaile batzuek erabiltzen dituzten xantaia emozionalak, hala nola euren buruaz beste egiteaz mehatxatzea.

Arabako Lurralde Historikoan egindako diagnostiko guztietan emakumeek sentitzen duten lotsa eta bakardadea aipatzen da. Eta, genero indarkeriaren biktimetzako Esku-hartze psiko-hezitzailea eta akonpainamendu sozialeko Zerbitzuari egindako elkarrizketan ere honako hau aipatu da: emakumeak paralizatu egiten direla harremana eteteak eragingo dien ondorioen beldur direlako; hemen, behin eta berriz aipatzen zen seme-alabak eta xantaia emozionala erabiltzen zutela erasotzaileek emakumeak kontrolatzeko.

Indarkeria egoeratik irtetzera bultzatzen duten faktore printzipalak honako hauek dira: seme-alaben segurtasuna kolokan jartzearaino areagotzea indarkeria; familiakoek, auzokoek, lagunek etab. osatzen duten harreman sarea; eta harreran hartzen dituzten profesionalengatik babesturik sentitzea.

Orokorreak, emakumeek zerbitzu soziosanitarioengatik jasotako arreta hobeto baloratzen dute ibilbide polizial-judiziala baino. Azken hau, biktimak salaketa bat tartekatzen duenean hasten da, eta jarraian letratuaren asistentzia bat izaten du, prozesua, epaiketa bidez bukatzen da eta bertan erresoluzio judiziala duten neurriak hartzen dira.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Ibilbide hau jarraitu duten emakumeek era positibo batean baloratzen dute Ertzaintzak emandako tratua eta arreta, baina genero indarkerian espezializaturik dauden langileengatik arreta jasotzearen garrantzia azpimarratzen dute.

Justiziari dagokionagatik, 2015eko urriaren 6an legean egindako erreformak¹⁷ genero indarkeria jasaten duten pertsona guztientzako doako asistentzia bermatzen du. Asistentzia jasotzeko beharra asetu den arren, ofiziozko abokatuak emakumeei emandako tratuari buruzko testigantzak jari nahi ditugu mahai gainean; izan ere, arreta jaso duten emakumeen gehiengoak uste du ez dutela behar bezalako asistentzia jasan, kasu gehienetan "behar ez bezalako tratua eta beste praxi txar batzuk jasan dutenaren kontaktak nagusitzen dira".

Jarraian, prozesu judizialean emakumeek bizitako esperientzien testigantza batzuk jarriko ditugu, adibide gisa:

"[Abokatuak] Baita ere, honako hau esaten zidan: 'badakizu salatuz gero sei hilez espetxeratu dezaketela?' (...) Horrela nik baloratzeko ea gizon horrek sei hilez kartzelara joatea merezi zuen, epaiketa nik irabaziz gero".

"Epaiketa arin bat egon zen (...) hor gaizki sentitu nintzen; zeren, nahiz eta ni biktimaren babes gelan sartu, handik atera nintzenean bera zegoen nire ate berberean bere ama eta abokatuarekin, eta inork ez zuen ezer egin. Bere begirada barrurarte sartu zitzaidan, metro bat baino gutxiago zegoen bion artean. Epaitegietan urruntze agindua ez da eraginkorra. Nire ustetan, epaitegi batera joateak eta jada ahul zaudenean pertsona hori aurrez-aurre ikusteak, gehiago ondoratzen zaitu. Beldurra areagotu egiten zaizu, batez ere 'zer zaude niri egiten?' mehatxuzko begiradarekin begiratzen badizu(...)"

"Egun guztian zehar, 'nire buruaz beste egingo dut' edo 'lepoa moztuko dizut'. Hori zen beti esaten zidana. Eta oroitzen naiz nola epailearen aurrean aitortu nuen esanez inoski deitzen niola, noski deitzen niola!, baina bere buruaz beste ez egiteko zen. Nik 'lasai, hitz egin dezagun, berritx itzuliko gara...'. Eta doa bera eta bi aldean urruntze agindu bat eskatzen du, orduan gaizkile bat bezala sentitu nintzen, oso, oso, gaizki sentitu nintzen. Hori niretzako lotsagarria zen, zeren, nik ez nion inoiz ezer egin, inoiz, inoiz ez nuen ezer egin epaile horrek... gainera oroitzen naiz nola

¹⁷Urriaren 5eko 42/2015 Legea, urriaren 7ko 1/2000 Legearen, Prozedura Zibilaren Legearen erreformak eragin zituena. <http://www.boe.es/boe/dias/2015/10/06/pdfs/BOE-A-2015-10727.pdf>

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

esaten zidan nagusitasunarekin: 'zu zara deitzen diona, zuk gainera deitu egiten diozu'.

Elkarrizketatutako emakumeen bizipenen kontaketeak argi uzten digute tratu desegoki bat jaso zutela, eta langileen formakuntza, sentsibiltate eta enpatia falta ere agerian uzten ditu. Ziurrazko, esperientzia hobekak izan dituzten emakumeak ere egongo badaudela, baina, honen bidez indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako bide judiziala jarraitzea zer nolako zaila izan daitekeen azpimarratu nahi dugu, eta beraz, alde, baliabide eta laguntza guztiak aztertu behar dira salaketa eta bide judiziala aholkatu aurretik.

5.2. Genero indarkeriaren biktimen esku-hartze psikosoziohezitzailea eta akonpainamendu sozialeko Zerbitzua

Diagnostiko hau osatu, eta emakumeek dituzten beharrian eta zerbitzuei egiten dieten balorazioa hobeto ulertzeko Hezilanek eskaintzen duen zerbitzu psikohezitzaileko koordinatzailea elkarrizketatu dugu, eta aldi berean, honen erantzule den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (IFBS-aren) arduraduna ere elkarrizketatu dugu; hau, besteak beste, gizarte langileei laguntzeaz arduratzen da (genero indarkeria kasuetan hauen erreferente delarik), horrez gain, Aldundiko harrera pisuak kudeatzen ditu eta zerbitzu psiko-hezitzailearen segimenduz arduratzen da.

Eurengana jotzen duten emakumeen gehiengoa 30 eta 50 urte bitartekoa izaten da. Euren esanetan, emakume gazteek ez dute programan sartzeko beharrik izaten, zeren, sare sozial handiagoa eta baliabide ekonomiko nahikoa izaten dute ibilbidea beste era batera egiteko.

Zerbitzu eta baliabide ezberdinetara jotzerakoan emakumeek izaten dituzten zailtasunak

Hartaratutako emakumeen perfila kontuan izanik, gehiengoak baliabide ekonomiko eta emozional gabezia duela esan daiteke. Hori dela eta, terapiaren espezializazioari behar bezalako garrantzia eman behar zaio; emakume askok esperientzia txarrak izaten dituzte genero indarkerian espezializatu gabe zeuden profesionalek eman dietelako arreta.

Argituz-en ikerketan, emakumeek, euren testigantzetan, jasaten zuten indarkeria zer nolako gogorra izan zen azaltzen zuten; urteetan zehar indarkeria psikologikoa

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

sufritu zuten emakumeek, indarkeria honek euren osasun fisiko eta mentalean nola eragin zuen azaltzen dute, euren buruaz beste egiteko ideia ere aipatuaz. Hezilanek, bere esperientzia kontuan izanik, emakume asko gazteak izan arren urteetako indarkeria egoera jasan dutela adierazten digu, gainera, Hezilanen esanetan, emakume hauek askotan bizi osoko frustrazioak, konpondu gabeko dueluak, amorrua eta min galanta izaten dute, eta hala ere, irteera prozesu oso gogor bati aurre egin behar izaten diote. Emakumeek, zerbitzu hau era positibo batean baloratzen dute, batez ere sentitzen dutelako zerbitzu honetako atea beti dagoela eurentzat irekirik, eta behar dutenean horra jo dezaketela.

Prozesuaren bigarren fase batean, emakumeak kementsuago sentitzen direnean, euren bizitzan zehar pilatzen joandako jabetzengatik borrokatu behar izanak eragindako amorrua sentitzen dute; batez ere emakume nagusiek izaten dute arazo hau, zeren, ohikoa da, euren ondasunak erasotzaileekin batera irabazpidezko erregimenean izatea. Ondorioz, frustrazio handia eragiten dieten prozesu judizial konplexuetan murgildu behar izaten dute.

Emakumeek eta beraiekin esku-hartzen duten profesionalek izaten duten zailtasunetako bat, arlo judizialean zer gertatuko den ez jakitea izaten da. Emakumea epaitegira joatera animatuz gero, esku-hartzea konplikatu egiten da; zeren, honek, emakumeak, berriz ere, bere istorioa zerbitzu ezberdinen aurrean kontatzera behartzen du, gainera, hori guztia, erasotzailea aurrean duela jakinik, eta epaia bere aldekoa izango denaren inolako bermerik izan gabe.

Nahiz eta emakumeek Ertzaintza eta Udaltzaingoari buruzko balorazio positiboa egin, salaketa tartekatzeke egiten duten deklarazioa luzeegia iruditzen zaiela aipatzen dute. Gainera, landa-eremuetan, sarritan, salaketa tartekatzean emakumeek ez dute aholkularitza juridikorik izaten. Aholkularitza jasotzeko eskubidea duten arren, ofiziozko abokatu bati itxarroteak (Lurralde Historiko osoan, genero indarkeriako kasuen ofizio-txandako bi abokatu daude soilik) askotan deklaratzeko eguna atzeratzea eragiten du, beraz, batzuetan, salaketaren prozesua abian jartzen da aholkularitza juridikoa jaso baino lehen.

Lanbideri dagokionez, nahiz eta Lanbidek eskaintzen duen zuzeneko arreta era positibo batean baloratu, batez ere, genero indarkeriako kasuentzat tutore bat dagoelako; bete beharreko baldintza guztiak, emaitzak ematerako orduan izaten dituzten atzerapenak eta bulegotik bulegora irizpideak aldatzeak oztopo bat bezala somatzen dute.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Horregatik guztiagatik, emakumeek euren ibilbidea beldur eta ezegonkortasun handiarekin abiatu edo jarraitzen dute; gainera, duten zaugarritasuna areagotuz joaten da prozesu luzean zehar izaten dituzten oztopoen eraginez.

Emakume atzerritarrak eta baliabideak eskuratzeko aukerak

Nabarmentzekoa da emakume atzerritarrek, bertoko herritartasuna duten emakumeekin alderatuz, baliabideak eskuratzeko orduan dituzten ezberdintasunak. Lehenik eta behin, Emakume atzerritarrek aurre egin behar izaten duten muga nagusienetako bat hizkuntza izan ohi da, bereziki, Afrika Subsahariarretik etorritakoek. Urteetan zehar Euskadin bizi eta bertoko hizkuntza ikasi ez izana ere, emakume horiek pairatu duten indarkeriaren adierazlea da.

Emakume atzerritarren kasuan, kontutan hartu beharreko beste muga batzuk familia eta erlijioa dira. Erasotzaileek emakumeen edota horien seme-alaben aurka sinesmen erlijioso eta magikoak erabiltzen dituzte xantaia emozionala egiteko; baldintza horiek, salaketarik ez jartzeko, berau kentzeko edo erasotzaileekin itzultzera behartzeko balio izaten dute. Aparteko kasuren batean izan ezik, emakume hauen familiak egoeraren kulpaz guztia emakumeei egozten diete, eurak estigmatizatuz eta lotsaraziz. Egoera hau bereziki, kolektibo musulmandar eta ijituengan antzematen da.

Hortaz, emakume atzerritarrek euren esperientzia kontatzen dutenean, beraien indarkeria istorioa era sakon batean kontatzeko zailtasun gehiago izaten dituzte eta ez dute prozesu psikologikoa bukatzen, edo euren istorioetan gehiegi sakondu gabe bukatzen dute.

Azkenik, aniztasun funtzionala duen emakumeen kasurik ia ez dutela artatu aipatzen dute, gainera, artatu dituzten apurren esku-hartzea oso zaila izan dela adierazten dute, eta orokorrean, ez direla programan sartu. Zailtasun berbera nabari dute gaixotasun kronifikatuak dituzten emakume nagusietan.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

6. KUADRILLAKO ETA UDALERRIETAKO LANGILE POLITIKOEN IRITZIAK

Kanpezu-Arabar Mendikatea Kuadrillan, Kuadrillako Batzorde bat dago; zeina, osatzen duten udalerrien parte hartze eta kontsultarako organo izateaz gain, eskualdeko zerbitzuak kudeatzeko arduraduna den. Batzordea, lehendakaritza eta lehendakariordetza banak eta 10 batzordekide¹⁸ osatzen dute; horiek, udalerrri ezberdinak ordezkatzeko dituzte udalerrri bakoitzeko biztanleria kopuruaren arabera (era proportzional batean):

- Arraia-Maeztu: 2
- Bernedo: 2
- Kanpezu: 3
- Lagran: 1
- Urizaharra: 1
- Harana: 1

Udalerrri bakoitzak, bere Udaletxea dauka.

Emakumeen aurkako indarkeriaren gainean politikariek duten jarrera ulertzeko asmoz, 5 talde elkarrizketa egin ziren, non, guztira 10 pertsonen parte-hartu zuten (5 alkatek eta 3 zinegotzik; eurretako bat Berdintasunekoak, beste bat Zuzendaria eta Kuadrillako gerentea).

Elkarrizketetan parte hartu zutenek, Kuadrillako indarkeria matxistaren gainean duten pertzepzioa eta hortik eratorritako kezkak azaldu zituzten. Horrez gain, biktimak artatzeko dauden zerbitzuen arreta eta koordinazioa baloratu zuten.

6.1. Kuadrillako indarkeria matxista arazoaren balorazioa

Elkarrizketatutako pertsonen indarkeria matxistaren definizio ezberdina duten arren, gehiengoa bat dator aipatuaz ezberdintasunean oinarritzen diren harremanak direla, eta gehienetan, emakumeen aurkako indarkeria batetan amaitzen duela harreman desorekatu horiek; aldiz, batzuen esanetan indarkeria mota hau emakumeek gizonei ere eragiten die. Elkarrizketatutako pertsona batzuek indarkeria matxista definitzeko eta terminologia egokia erabiltzeko zailtasunak

¹⁸ DIAGNOSTIKOAREN MAPA. Generoa. Arabako Kuadrillena, 2009, 14. orr.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

dituztela onartzen dute, eta honek indarkeria mota hau identifikatu eta zehazteko zailtasunak eragiten die.

Indarkeria mota honen arrazoi nagusia urteetan zehar jaso eta eman den hezkuntza matxista dela diote; are gehiago, kasu batzuetan, indarkeria matxista gizarteko estrukturan parte dela aipatzen dute, eta hau maila ezberdinetan ikus daitekeela, bai arlo publikoan eta baita arlo pribatuan ere.

Horrez gain, uste dute Kuadrillan nagusitzen diren landa-eremuetan genero rolak oso barneraturik daudela, eta indarkeria normalizaturik dagoela; beraz, eremu hauetan bizi den jendea (batez ere jende nagusia dena), ez da inguruan bizi dituen indarkeria egoerez ohartzen. Elkarrizketatutako pertsona batzuen esanetan, hau da indarkeria mota honi behar bezalako garrantzia ez ematearen arrazoia, are gehiago, batzuetan honen existentzia ere ezeztatu egiten da.

Udalerrietan dagoen indarkeria matxistaren existentziaren gaineko pertzepzio ezberdinak daude. Eta nahiz eta gehiengoak jarrera matxistak nagusitzen direla nabaritu, elkarrizketatutako langile politikari batzuk indarkeria matxista ez dela Kuadrillako arazo bat diote, are gehiago, kasurik ez dutenez ezagutzen, arazo hori ez dela existitzen ziurtatzen dute. Bestalde, beste langile politikari batzuk uste dute kasurik ez ezagutzeak ez duela suposatzen ez direnik existitzen, hori indarkeria egoerak baloratzeko duten zailtasunak eragindako zerbait dela deritze.

Orokorrean, gazte eta emakume nagusiek arduratzen die gehien. Gazteriak, gaiaren inguruko informazio asko duen arren, jarrera matxistak errepikatzeke joera dutela sumatzen dute, are gehiago, uste dute genero rolak nabarmenagoak direla jende gaztean aurreko generazioetan baino.

Emakume nagusien kasuan, aldiz, herri txiki eta aislatuetan bizi direla diote, udalerrietako erdigunetik urrundurik; beraz, oso zaila izaten da indarkeria matxista jasaten duten edo ez jakitea. Gainera, indarkeria matxista normalizatzen duen belaunaldi batekoak izateak emakume hauek euren burua biktima bezala identifikatu eta laguntza eskatzeko zailtasunak eragiten ditu. Kontuan hartu behar da, guztiak ezagutzen diren ingurune batean laguntza eskatzea oso zaila dela; "zer esango duten"-aren beldur da jendea. Honegatik guztiagatik, eta kontuan izanik Kuadrillako udalerriak zaharkiturik daudela, emakume nagusiek bizi duten egoeraren gaineko kezka nagusitzen da; euren egoera nola ezagutu eta artzatzeko zailtasunak baitaude.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

Udaletxe ezberdinetako politikarien ustetan, ezinbestekoa da indarkeria matxistaren gaia arlo guztietan eta zeharka lantzea; prebentzioa lehentasuntzat ezarri eta biztanleria gazteenean gaia landuz, horrela indarkeria ezabatzeko beharra txikitatik sustatuz.

Aldi berean, identifikatutako indarkeria matxista kasuei irmotasunez aurre egin behar zaiela diote, era publiko batean eraso horren aurka jo eta biktimari behar bezalako laguntza eskainiz. Honen harira, ezberdintasunak nabari dira: batzuen esanetan, erraminta eta jokatzeko aldez-aurreko pautak behar dituzte (argi izateko nola jokatu, nola lagundu biktimari eta honen familiakoei etab.), honen bidez indarkeria kasu bati aurre hartu edota emandakoan jakiteko nola erantzun behar duten; beste bazuen esanetan, nahikoa da zerbait gertatu eta gero eman beharreko erantzuna antolatzeaz.

Arreta eta koordinazio protokolo bat sortzeko beharrari dagokionez ere, langile politikari batzuek ezinbestekoa deritze horrelako zerbait sortzea; aldiz, beste batzuen ustetan ez da horren beharrezkoa, euren ustetan kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera jokatu behar da, eta beharrezkoa izanez gero gai hau Kuadrillak landu beharko lukela diote.

Orokorrean, Kuadrillako Berdintasun teknikari bat izatea positiboki baloratzen dute, nahiz eta berarekin duten hartu-emanaren estutasuna udalerraren araberakoa izan. Uste dute lanpostu hau denboran zehar mantendu egin behar dela, eta besteak beste, udaletxeetan burutu dezaken formazio lana azpimarratzen dute, honek berdintasunaren sustapen bat eragin dezake eta.

6.2. Biktimei emandako arreta eta koordinazio instituzionalaren gaineko balorazioa

Langile politikoen gehiengo batek, indarkeria sexista kasuen aurrean ez dakitela maila instituzionalean nola erantzun onartzen dute, batez ere, ezagutzen diren, baina publikoki zabaldu ez diren kasuetan. Udaletxe bezala ezin direla koordinazio hutsarekin gelditu diote, eta erantzun publiko desegokia eman eta biktimaren pribatutasuna urratzeko beldur dira.

Langile politikari batzuk, protokolo baten faltan, Kuadrillako Gizarte Langilearekin koordinatu direla adierazi dute. Koordinazio honen gain ere ikuspuntu ezberdinak

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

daude: batzuen esanetan koordinazioa ona eta eraginkorra da; beste batzuek, aldiz, uste dute batzuetan Gizarte Zerbitzuek emandako erantzuna ez dela nahikoa izan eta koordinazioa ere hobetu egin behar dela, horrela biktimei kalterik ez sortzeko erraminta nahikoa izateko.

Pertsona batzuek, Gizarte Langilea, biztanleriarentzat ezaguna den eta arazoan aurrean laguntza eskatzeko erreferentea den pertsona bat bezala ikusten dute; baina, guztiek ez dute iritzi berbera, izan ere, batzuen ustetan horrelako arazoan aurrean ez da emakumeentzat erreferente bat, argian, biztanleriak ez dakizkielako zeintzuk diren bere funtzioak eta indarkeria matxista baten aurrean esku-hartzeko dituen erramintak. Aldiz, guztiak bat datoz aipatzen dutenean Gizarte Langile bat ez dela nahikoa udalerrri guztietako beharrak asetzeko.

Gizarte Zerbitzuen koordinazioa eta erantzuna hobetzeaz gain, beharrezkoa deritze dauden baliabideen berri ematea biztanleriari, horrez gain, genero indarkeria kasuen aurrean bakoitzak bete beharreko funtzioak zehaztu, eta gaiaren gaineko formazio espezifiko behar dela uste da, bai Gizarte Langileari emateko eta baita langile politikariari ere.

Kuadrillan Berdintasun Teknikari bat egoteak deribazio on bat burutzerakoan, koordinatzerakoan eta behar bezalako erantzun publikoa ematerakoan izan ditzaketen zalantza ezberdinak erantzuteko eta laguntzeko balio duela diote denek, adostasun osoz.

Osasun langileak ere paper esanguratsua dutela uste dute, langile hauek duten hurbiltasun eta konfiantza mailagatik errazagoa egiten baitzaie indarkeria egoerak antzematea. Gainera Ertzaintza eta osasun langileen erantzuna eraginkorra izaten dela deritze; euren protokolo propioak baitituzte.

Hobetzeko proposamenen artean, Udaletxeak herritarrei dauden zerbitzu eta baliabideen berri ematea proposatzen dute, eta aldi berean, egoera baten aurrean jarraitu beharreko jarraibide batzuk ezarriz. Mezu hori zabaltzeko, Udaletxeak dituen baliabideak erabiltzea planteatu dute, besteak beste: iragarki tauletan, web-guneetan, gutun bidez etab.

Gizarte Langilearen eta Kuadrillako Berdintasun Teknikariaren artean ere koordinazioa hobetu beharko litzateke, indarkeria kasuen balorazio bateratuak eginez, eta arreta integrala emanez. Horrez gain, garraio publiko gabezia ere

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

konpondu behar da, horrela autorik edo karnetik ez duten emakumeek ere baliabideak eskuratu ahal izateko.

Administrazio batzordeko ordezkariak (euren herrietan erreferenteak diren pertsonak direnez) genero indarkeria kasuak antzeman eta jarduteko koordinazioetan paper aktiboago bat izatea proposatzen dugu. Horretarako pertsona hauek nola antzeman eta nola jokatu jakiteko formakuntza saio bat jaso beharko lukete. Udalerrri edo Kuadrilla mailan eman daitekeen formakuntza hau jasotzera gonbidatzeko pertsona batzuk jada identifikatu dira.

7. KUADRILLAKO ETA UDALERRIETAKO LANGILE TEKNIKOEN IRITZIA

Langile teknikoaren iritzia hobeto antolatzeke asmoz, atal hau bi zatitan banatu dugu: lehen zatian, biktimekin esku-hartze zuzena duten zerbitzuak aztertuko dira (gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzuak eta Ertzaintza); eta bigarren zatian, indarkeriaren sentsibilizazio edota prebentzio lanak burutzen dituztenak.

Euren esperientzia ezberdina da, baina euren osotasunean indarkeria matxista tratatzerako orduan, udal eta eskualdeko politikek dituzten arazo ezberdinak ikusteko balio digu, eta aldi berean, lan hau burutzeko dituzten zailtasunak ezagutu ahal izateko ere baliagarria da.

7.1. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Kanpezu- Arabar Mendikateko Kuadrillak Gizarte Langile bakarria dauka hau osatzen duten 6 udalerrientzat. Honen esanetan, zerbitzua lanez gainezka egon arren, ez dago beste pertsona bat kontratatzeke aukerarik, 3.000 biztanleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuentzako pertsona bakarria baitdagokie.

Gizarte Langilea egunero Santikurutze Kanpezun duen lantokira joaten da, eta gero, bertatik egunean joatea dagokion udalerrira joaten da. Astean behin joaten da udalerrri ezberdin guztietara, Lagran eta Urizaharrera izan ezkik, bi udalerrri hauek hamabostik behin joaten da. Kuadrillak oso lurralde zabala osatzen du eta herrien arteko distantzia luzeena 50 km-koa da. Arreta ordua goizeko 08:00etatik arratsaldeko 15:00ak artekoa da. Orduetegi horretatik kanpo, beharrezkoa izanez gero, Udaletxeak Gasteizko Larrialdi Zerbitzuekin dauka konbenio bat, beraz, bertara deribatuko lirateke kasuak.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA 2017

Gizarte Langileak indarkeria matxistan formazioa jaso du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eskutik, eta Arabako Foru Aldundiaren etengabeko laguntza jasotzen du.

Arreta emateko dituen espazioak ezberdinak dira, bere ustetan udalerrri batzuetan intimoagoak dira beste batzuetan baino; hala ere, beste bulego edo etxera joateko aukera egoten da beti, gauza berbera egingo luke emakumeak aniztasun funtzional fisiko bat izango balu. Inoiz ez du artatu beste hizkuntza batean mintzo zen emakumerik, baina hori gertatuz gero itzulpen telefonikoko zerbitzua erabiliko luke.

Arreta, baliabide eta koordinazioari buruzko iritzia

Gizarte Langilearen arabera indarkeria jasan duten emakumeei zuzendutako baliabideak egokiak dira. Baina, Eudel eta Diputazioak emakumeei emateko banatzen dituen informazio folletoak gehiegi direnez, ez du jakiten zein eman emakumeei.

Erreparatzen duen arazoetako bat honako hau da: jendea ez dela indarkeria egoera baten berri ematera hurbiltzen, eta hori eginez gero, iradokitzen bezala egiten zuten eta ez dute nahi izaten esandakoa ezagutzera ematerik. Egoera hauek eskuhartze bat burutzeko zailtasunak eragiten dituzte; gainera, uste du biztanleriak ezdakiela zein den Gizarte Zerbitzuen funtzionamendua, bere betebeharrak, erabilgarritasuna etab.

Azken lau urteetan Kuadrillan eman diren genero eta etxeko/familiarteko indarkeria kasuen berri du, hauetan, biktimek 30 eta 70 urte bitartean zituzten; baina bere ustetan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara heltzen ez diren kasuak ere egon badaude, hauek zuzenean zerbitzu espezializatuetara jotzen dute.

SSB-etara laguntza eske joaten diren emakumeek, asistentzia juridikoa edo psikologikoa eskatzen dute orokorrean, baina kasuren batean eskatu izan dute ostatu baliabide bat (emergentziako pisuena hain zuzen ere). Gizarte Langilearen esanetan emakume batzuek ez dute nahi izan eskainitako errekurtsu edota laguntzarik.

Artatu dituen azken indarkeriako hiru kasuetan, erasotzailearekin harremanetan jari eta hitzordu bat ezartzeko beharrezana sentitu du. Erasotzaile hauekin izandako topaketetara bakarrik joan zen, babesgabetasun egoeran ikusten zuela bere burua

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

azaltzen du eta horri erantzun bat eman behar zaiola. Beste batzuetan, erasotzailearekin harremanetan jarri da erasotzaileentzako dauden arreta zerbitzuetara deribatzen.

Burutzen dituen deribazio gehienak IFBS-ra egiten ditu, baina duela lau urtetik Guardiako Ertzaintzako genero indarkeriako lan-taldeaz ere koordinatzen da. Orokorrean, koordinazioa telefono edo korreo elektronikoko bidez egiten da.

Kuadrillako langileekin koordinatu eta harreman estua dauka, zeren eraikin berdinean egiten dute lan. Horrez gain, osasun zerbitzuekin eta ikastetxeekin ere koordinatzen da, gainera, azken hauekin harreman ona duela adierazten du. Aldiz, ez da gauza berbera gertatzen Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuarekin, zeren, zerbitzu honetako teknikaria Agurainen egoten da; hala ere, bere esanetan, beharrezkoa izanez gero ez lukela berarekin koordinatzeko arazorik izango.

Beste aldetik, Kuadrillaren eta Santikurutze Kanpezuko Udaletxearen arteko harremana ez dela oso malgua adierazten du, eta soilik momentu puntualetan ematen dela. Udaletxeak bere Berdintasun plan eta teknikari propioak ditu, azken honek lanaldi erdian egiten duenez lan, ez du izaten honekin inolako informazioaren hartu-emanik.

Kasuen segimendua egiten du emakumeari behar dituen neurriak eman arte, hau da, arazoa konpondu arte. Behin kasua deribatu eta gero, bukaerako informea jasotzeko zain egoten da, baina, hau kasu motaren arabera izaten da.

Arretarako zailtasunak

Gizarte Langileak honako zailtasun hauek somatzen ditu: lehenik, egoeraren berri auzokideren batek ematen dionean, kasuan esku-hartzeko zailtasun eta erraminta falta duela adierazten du; bigarrenik, biktima eta erasotzailea batera bizi direnean esku-hartzeko zailtasunak izaten ditu; eta azkenik, biktimak ez duenean bere laguntza nahi. Beste zerbitzuetatik jasotako kasuak tratatzea errazagoa dela adierazten du.

Indarkeriaren biktimei eman behar dieten folletoetako informazioa hobeto kudeatzeko proposamena luzatzen digu Gizarte Langileak, honen bidez, folletoak banatzerakoan izaten duen nahastea saihestuko litzateke.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

7.2. Osasun langileak

Kuadrillako Lehen Mailako Arreta Unitateko langileei talde elkarrizketa bat burutu zitzaion, bertan, 7 pertsona elkarrizketatu ziren (3 erizain emakume, 3 mediku gizon – haietako bat Arreta Unitateko Nagusia-JUAP- eta emakumezko mediku bat); hauek Santikurutze Kanpezun, Arraia-Maeztun eta Bernedon egiten dute lan.

Kanpezu- Arabar Mendikateko Lehen Mailako Arreta Unitatea, ESI¹⁹ Arabaren menpe dago. Landa-eremuetan, Lehen Mailako Arreta Unitateek ez dute izaten aholkularitza-bulego nagusirik, normalean horrelako bat egoten da herri nagusienean; kasu honetan, Santikurutze Kanpezun dago bulego nagusia, eta Bernedo eta Arraia-Maeztun beste txikiago batzuk daude. Gainera, herri txikiagoetan ere badaude bulegoak eta bertatik igarotzen dira astean behin, ez egunero gainerakoetan bezala.

Lehen Mailako Arreta Unitateek ondorengo 5 udalerrietan eskaintzen dituzte euren zerbitzuak::

- ❖ **Lagran eta Bernedo:** Bi udalerrri hauetako biztanleei Bernedoko bulegoa dagokie.
- ❖ **Harana eta Santikurutze Kanpezu:** Udalerrri hauentzako zerbitzua Santikurutze Kanpezuko osasun zentroan ematen da.
- ❖ **Arraia-Maeztu:** Udalerrri honek bere biztanleriarentzako kontsultategi propioa du.
- ❖ **Urizaharra:** Santikurutze Kanpezu- Arabar Mendikateko Kuadrillako udalerrri bat den arren, honi beste Unitate batek ematen dio zerbitzua, *Valles 2* deituriko Unitateak, hain zuzen ere; azken Unitate honek Añanako Kuadrillako udalerrri batzuei ematen die zerbitzua, eta ESI berberaren barnean dago, Arabako ESI-arena hain zuzen.

Osasun zentroen arreta ordua goizeko 08:00etatik arratsaldeko 15:00etara da. Ordu honetatik, hurrengo eguneko goizeko 08:00etara biztanleria guardiako Unitateak hartaratzen du, gauza berbera gertatzen da asteburu eta jai egunetan 24 orduz.

¹⁹ Erakunde Sanitario Integratua (ESI), arreta maila ezberdinen artean dagoen banaketa eta koordinazio faltari aurre egiteko sortutako estrukturak dira, batez ere, Lehen Mailako Arreta eta anbulatorio arlokoa asetzeko.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Osasun larrialdien telefonora deituz gero, dei hau Gasteizen hartzen da ,eta jarraian, osasun langileei jakinarazten die; aldiz, 112 (SOS DEIAK) larrialdi zenbakiak dagokien osasun langile eta Ertzaintzari jakinarazten die. Osasun langileen ustetan, hobe da osasun larrialdietara deitzea, zeren, hauek informazio gehiago biltzen dute eta koordinazioa zuzenagoa da; aldiz, 112tik jasotzen dituzten abisuetan ez dute kasuari buruzko informazio askorik jasotzen.

Biktimekin arreta eta esku-hartzea

Elkarrizketatutako pertsona batek adierazi zigun genero indarkeria gizonezkoek emakumezkoengan eragiten duten indarkeria dela, eta kasu kopurua oso altua dela, indarkeria mota hau, gure gaur egungo kulturen normalizaturik dagoelako. Gainontzeko elkarrizketatuek egindako komentarioetan, aldiz, hainbat mito ageri ziren, adibidez: salaketa faltsuak, indarkeria mota honen aurrean gizonezkoak babes gabe daudela edo kasu hauetan emakumeen aldeko diskriminazio positiboa dagoela.

Gogora ekarri behar dugu emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako Fiskaltzaren urteko Memoria²⁰. Honen arabera, 2009 eta 2015 urte bitartean 913.118 salaketa egon ziren genero indarkeriagatik; eta aldiz, 164 kasutan eman ziren aitorpen eta salaketa faltsuak, hau da, prozeduren %0,0079a.

Osasun langileek, arreta, kontsulta indibidualen bidez ematen dute, beraz, erabiltzaileen intimitatea ziurtaturik dago. Artatutako indarkeria kasuen erregistrorik ez dutela onartzen dute, baina euren kalkuluen arabera, azken urteetan 5 edo 6 kasu izan dituzte. Azkena, Santikurutze Kanpezun artatu zuren; kasu hau, atzerriko emakume batena izan zen, bertan, hirugarren pertsona batek emergentzietara deitu eta gero, anbulantziak kontsultategira eraman zuen emakumezkoa. Azken kasu honetako emakumeak ez zekien erdaraz hitz egiten, eta bakarrik zegoen errepidean eraso fisiko larri bat jasan ondoren.

Beste hizkuntza batzuetan arreta eskaintzeko itzulpen zerbitzu telefonikoa daukate, baina langileek ez dakitela hau nola erabiltzen den adierazi ziguten, zeren, telefono hauek duela sei hilabete aldatu zizkieten eta ez dakite berrien funtzionamendua zaharrena bezalakoa den edo ez.

²⁰ Genero indarkerian espezializatutako Fiskaltzaren urteko Memoria. 2016. 406.orr.
<http://www.abogacia.es/wp-content/uploads/2016/09/MEMFIS16-1.pdf>

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA 2017

Arraia-Maeztu eta Bernedoko osasun zentroak aniztasun funtzional fisikoa duten pertsonentzat adaptaturik daude, baina Santikurutze Kanpezukoa ez (beste osasun zentro bat daude eraikitzen udalerrian).

Indarkeria jasan duten pertsonen jarraitzen duten ibilbidea, osasun zentroetan

Emakumea osasun zentrora heltzen denean, lesio fisikoak baldin baditu, jarraitu beharreko prozedura honako hau da: lehenik eta behin, arreta eskaintzen zaio, lesioen parte egiten da eta auzitegietara bidaltzen da. Aldiz, emakumeak ez dituenean lesio fisikoak, baina, bere historian indarkeria egoera jasan duela adierazten duenean, bai berak adierazi edo langileak somatu duelako, galdetu egiten zaio ea gertatutakoa bere historia medikuan islaturik agertzea nahi duen edo ez.

Ezezkoa erantzuten badu, osasuneko langileak emakumearen sintomak jar ditzake bere historian, baina genero indarkeria kasua izan dela adierazi gabe; edo profesionalaren arabera, **konfidentzial**²¹ bezala jar dezake. Arrazoi ezberdinengatik (hala nola, larrialdi zentro batera joateagatik), biktima ezin izan badu bere mediku buruak artatu, berak gertatutakoaren berri izateko nota bat jar diezaiekete.

Indarkeria egoeretan izaten dituzten arreta edota antzemate arazoak

Osasun langileen esanetan ez dakite genero indarkeriaren biktimentzat zer nolako baliabideak dauden, baina nola jarraitu jakiteko informazioa beharko balute, Gizarte Langileari deribatuko liokete kasua, eta hau egon ezean, Biktimentzako Arreta Zerbitzuarekin jarriko lirake harremanetan, edota derrigorra izan ezker Ertzaintzarekin.

Etxeko tratu txarrei eta emakumeen kontrako sexu-indarkeriari buruzko protokolo sanitarioa²² ezagutzen dute; eta badakite bertan indarkeria fisikoen kasuan jarraitu beharreko dena zehazten dela. Baina, euren ustetan protokolo hau

²¹ Historial medikuan zerbait konfidentzial bezala azaltzen bada, hau idatzi zuenak eta artatutako pertsonaren medikuak ikus dezakete, soilik.

²² Protocolo sanitario ante el maltrato en el ámbito doméstico y la violencia sexual contra las mujeres, 2008, Departamento de Sanidad de Gobierno Vasco.
http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/maltrato_domestico/eu_txarra/djuntos/protokolo.pdf

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

ez da horren argia indarkeria psikologikoa dagoenean; eta emakumeak ez badu bere burua biktima bezala ikusten, protokoloak ez omen du antzemateko jarraibide nahikorik ezartzen (indarkeria fisikoaren kasuan egiten duen bezala).

Hartaratzen dituzten genero indarkeria kasuen gainbegiratzetik egin ez arren, lanean ari diren profesionalek euren artean tratatzen dute beti kasua. Horrez gain, gaiaren inguruan hitz egin nahi ez duten emakumeen kasuei segimendu bat egitea oso zaila dela ere adierazi ziguten.

Bizitako esperientziaren arabera, profesionalek ziurtatzen dute indarkeria jasotzen duten emakumeak, gehien bat, nagusiak direla, eta hauek, bizi duten egoera normalizatzen dutenez ez dute onartzen indarkeria jasaten ari direnik. Kasu hauetan, emakumea egoeraz jabearazi nahi izaten dute; eta horretarako, galdera edota iruzkin ezberdinak erabiltzen dituzte, baina ez dira gehiegi tematzen horretan, emakumearekin izan ditzaketen arazo beldur baitira. Kasuren batean, emakumeen seme-alabei jakinarazten diete egoera, baina, eurek egoera normalizatzen dute "beti izan da horrela" adieraziz.

Elkarrizketatutako pertsona batek adierazi digu, bera ez dela eroso sentitzen genero indarkeria kasu batetan esku-hartzen duenean. Pertsona honen esanetan, behin parte medikua eginda dagoenean, berak emakumeari denuntzia tartekatu nahi duen edo ez galdetu eta Gizarte Langilearekin harremanetan jartzen du; gainera, behar duen tramite guztietan laguntzen dio biktimari.

Beste zerbitzu batzuekin duten koordinazioa

Osasun zentroko langileak, jarraitu behar dituzten pausoak jakiteko, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuarekin eta Gasteizeko koordinatzailearekin koordinatzen dira. Lesioen parte dagoen kasuetan epaitegiekin koordinatzen dira, bertara bidaltzen dute parte zuzenean. Emakumeak salaketa bat tartekatu nahiko balu, Ertzaintzarekin jarriko ziren harremanetan, baina, honetako, ez dago jarraibiderik ezarrita.

Uste dute larrialdi kasuetako koordinazioa hobetu egin behar dela, eta indarkeria kasuentzako telefono zehatz egon beharko litzatekela. Gainera, Kuadrillan dauden baliabide ezberdinen berri izan beharko luketela uste dute, adibidez, harrera pixuen gainekoa. Horrez gain, 24 orduko asistentzia eskaintzen duten zerbitzuen berri ere izan nahi dute.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA 2017

Eusko Jaurlaritzak urteko 365 egunetan, egunean 24 orduz, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzua duela gogorarazi nahi dugu; zerbitzu honek, emakume biktimei, profesionalei, senideei eta behar duten pertsonei aholkua eta informazioa eskaintzen die.

7.3. Ertzaintza

Genero/etxeko indarkeriako (hemendik aurrera GI/EI) Unitatearen erantzulea eta babes eta ikerketarako zuzendariordea elkarrizketatu ziren Guardiako komisaldegian.

Zerbitzuaren egitura

Kanpezu- Arabako Mendikatea Kuadrillari Guardiako komisaldegia dagokio. Aipatu berri dugun komisaldegia organigrama honako hau da:



Komisaldegian 106-108 polizia-agente daude, gutxi gora behera; hauek talde eta unitate (edo atal) ezberdinetan banatzen dira, horrela 24 orduko zerbitzu bat eskaini ahal izateko. Langile gehienak gizonetzkoak dira, eta horrek, instrukzioan ezarritakoa betetzeko oztopoak eragin ditzake; izan ere, honen arabera, emakumezko biktimekin esku-hartzea beste emakume batek burutu behar du, beti ere posible bada.

GI/EI Unitateko arduraduna (emakumezkoa) ikerketa taldeko partaide da, baina, ordutegi banaketaren ondorioz, lehen esku-hartzea ezin izaten du beti berak egin.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Asteburuetan edo GI/EI Unitateko arduradunaren ordutegitik kanpo salaketaren bat tartekatzen badu emakumeren batek, 24 orduz guardian dagoen instruktoreak hartaratuko luke, eta honek ezingo balu, Unitateko zuzendariari jakinaraziko zitzaion. Beraz, emakumeak beti jasoko luke arreta.

Agente horrek (GI/EI Unitateko arduradunak) 15 urte daramatza Unitateko buru bezala, eta berak, Kanpezuko Kuadrillako eta Arabako Lurralde Historikoko beste udalerrri askotako espediente irekiak kudeatzen ditu. Arkauteko formakuntzaren bidez, atestatuak egiten, genero indarkeriaren biktima diren emakumeekin behar bezala tratatzen eta arriskuaren balorazioa burutzen ikasi zuen. Horrez bai, berak eta instruktoreak urtero gai honen inguruko formakuntza jasotzen dute (batez ere, biktimak artatzeko egin behar duten guztian zentratzen dira formakuntza saio hauek); Arkautek eskainitako formakuntza saioetatik at ere jaso dute heziketa.

Ertzaintzak udalerrri ezberdinetan ofizina publikoak ditu, adibidez, Santikurutze Kanpezun; beraz, salaketa tartekatu edo aholkularitza jasotzeko, biztanleek ez dute zertan Guardiarte joan behar. Lokal honetan astean birritan egoten dira, ordubetez. Edozein arrazoiagatik, pertsonaren batek ezingo balu salaketa bat tartekatzera komisaldegira hurbildu, eta bere ezintasun hau adierazten badu, patruila bat joango litzateke bere etxera edo berak nahi duen lekura. Langile hauen esanetan, horrelako harreman hurbila ezin daiteke hiriburuetan izan (adibidez Gasteizen), hau, bertako ezaugarri espezifiko bat dela adierazten dute.

Kasu hauetan Ertzaintzaren eginkizun nagusia biktima babestea izaten da. Unitateko arduraduna honako hau burutzeaz enkargatzen da: irekita dauden espedientez, espediente berriak irekitzeaz, emakumeei elkarriketak egiteaz, erasotzailearen jarreran ea aldaketaren bat eman den jakiteko beharrezkoak diren aldizkako segimendu eta balorazioak egiteaz eta emakumea babesteko nahitaezkoak diren neurriak ezartzeaz. Kasu hauetan, Bortxa telefonoa, prebentzio neurriak (biktimaren bizileku edo lantoki inguruan bigilantzia bat jartzea), kontrolatzeko neurri telematikoak (pultserak) eta kasurik larrienen etengabeko zaintza (24 orduko eskolta) ezar daitezke.

Ertzaintzak, Emakunderekin batera, informazio saioak burutu izan ditu. Genero indarkeriari buruzko informazioa eskaintzeko, zalantzak erantzuteko eta biztanleria sensibilizatzeako autobus ibiltari bat jarri zuten; hau, Arraia-Maetzun eta Santikurutze Kanpezun egon zen. Guzti honen helburu nagusia, biztanleriari GI/EI kasuetan egiten duten esku-hartzearen berri ematean eta biktimentzako dauden

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

baliabide ezberdinei buruzko informazioa eskaintzean datza. Ekintza mota hauek era positiboan baloratzen dituzte, zeren, euren esanetan, indarkeria jasaten ari den pertsona bati segurtasuna eman, eta ondorioz, pertsona hori zerbitzura gerturatzeko aukera gehiago sortzen ditu; horrez gain, biztanleriarekiko duten hurbiltasuna areagotzeko aukera bat izaten da.

Biktimari arreta

Biktimari arreta eskaintzeko bulego batzuk izaten dituzte, eta biktimak ez badu nahi Ertzaintzaren instalazioetan hartaratua izan berak nahi duen lekuan egin dezakete hau.

Komisaldegia aniztasun funtzional fisikoa duen pertsona bat hartaratzeko prestatu dago eta Ardatzen (Ertzaintzaren koordinazio eta kontrolerako gunearen) bidez edozein hizkuntzaren itzulpena izan dezakete; are gehiago, entzumenezko aniztasun funtzionala duten pertsonen itzulpena ere bertatik egiten dute. Adierazten duteagatik, ez dute zerbitzu hau askotan erabili, baina, balorazio positiboa egiten diote.

Gasteizen, *Loremaitea*²³ izeneko haurtzaindegi bat ere badute, hau, AGLE Elkartek kudeatzen duen Guraso bakarreko Familien Arreta Osoko Zerbitzua da. Haurtzaindegi horretan emakume biktimen haurrak (adin txikikoak) zaintzen dituzte, berak epaitegira joan behar duenean edo beste kasu batzuetan. Orokorrean, genero indarkeria kasuren batean emakumeak haurrak baditu, hauek, familiako beste kideren baten edo emakumearen konfiantzazko norbaiten kargura uzten ahalegintzen dira; baina, hori egin ezin dutenean zerbitzu hau erabiltzen dute. Zerbitzu hau ongi baloratzen duten arren, uste dute, zabalagoa izan beharko litzatekela; aldiz, onartzen dute, adin-txikikoak tarteko egoten diren kasu gutxi izaten dituztela.

Gaur egun, uztailaren 22ko haurtzaroaren eta nerabezaroaren babes neurrien sistemaren aldaketaren 8/2015 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik (zeinaren bidez adin-txikikoak ere biktima bezala hartzen diren), adin-txikikoak ere emakumearen espedientean barneratzen dituzte, nahiz eta, hauek ez jasan agresioa era zuzen batetan; hala ere, adierazi egiten da esposizio bidezko biktima

²³ <http://www.asoagle.org/lorea-maitea/>

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

dela, *bigarren mailako biktima* bezala izendatzen dute. Honen ondorioz, hurrengo estatistiketan biktima kopuruak gora egingo du, nahiz eta kasuek ez egin.

Salaketaren unean emakumeek behar bezalako arreta jaso behar dutela diote, zeren, ikaraturik daude eta oso pauso garrantzitsua daude ematen. Hasierako unean, arreta eskaintzen dienen enpatia eta ulermena bilatzen dute, eta ondoren, euren oinarrizko beharrianak asetzea. Orokorrean, emakumeek adierazten duten beharra, ekonomikoa izaten da, zeren, gehienetan erasotzailearekiko dependentzia ekonomikoa izaten dute. Kasu batzuetan, emakumearen egoera hain izan da prekarioa ze epaitegira eramatea eskatu zieten (hau ez zen babes edo laguntzagaririk izan, baizik eta honek eragiten zion gastuagatik).

Orokorrean, emakume biktimek zerbitzu hau ongi baloratzen dutela diote, baina ahala ere, egon dela kasuren bat non emakumea ez den gustura sentitu jasotako arretagatik edo hartaratu zituen pertsonak gaiarekiko ez zuela sentsibilitaterik; hala ere, balorazio hauek subjektiboak direla azpimarratzen dute.

Kasuen deribazioak eta beste zerbitzuekin duten koordinazioa

Indarkeria kasuak zuzenean Ertzaintzara heltzen direnean, Gizarte Zerbitzuetatik igaro gabe, emakumeari bere datuak Gizarte Langileari emateko baimena eskatzen zaio. Emakumeak ez badu nahi, orduan zerbitzu horren berri ematen diote eta adierazten diote bertara joan daitekeela edozein laguntza eskatzera (psikologikoa, bizileku batena, lan arlokoa, ekonomikoa..). Elkarrizketatuen esanetan, Kuadrillan dauden zerbitzuak gutxiengoak dira eta Gasteizera joateko ere ez dago behar bezalako garraio publikorik, beraz, Arabako Foru Aldundiak zerbitzu hauek hobetu beharko lituzkela deritze; mugikortasun arazoei aurre egin ahal izateko.

Orokorrean, emakumeak izaten dira SSB-ekin harremanetan jartzen direnean, baina emakumeren batek bere informazioa errazteko baimena ematen badiu Ertzaintzari, honek informazio guztia ematen dio zerbitzuari; hala nola, egindako arriskuaren balorazioa. Gainera, bi zerbitzuen artean komunikazioa mantendu egiten da denboran zehar, honek behar bezalako jarraipen bat egitea ahalbidetzen baitu. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin izan dituzten koordinazioak onak eta azkarrak izan dira, gainera Gizarte Langilearen prestutasun osoa erakutsi duela beti adierazten dute.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Indarkeria egoera Kuadrillako SSB-en ordutegitik at ematen baldin bada, Ertzaintza Gasteizeko poliziarekin eta IFBS-arekin jartzen da harremanetan. Behin hori egin ondoren, Gasteizeko polizia egiten da emakumea hartaratu eta behar den lekura eramateko kargu. Adierazi dutenaren arabera, hurrengo hileetan aldaketak emango dira arlo honetan; horrela, deribazioa eta arreta hobetzeko.

Biktimek, nahi badute, Bortxa zerbitzua eskuratu dezakete komisaldegian; honek, Ertzaintzarekin, Ardatzekin (Ertzaintzaren koordinazio eta kontrolerako gunearekin) eta asistentzia psikologikoarekin (Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzuarekin) harremanetan jartzeko telefono zenbakiak ditu barneraturik. Horrez gain, SAV-en (epaitegian biktimak arreta jasotzeko zerbitzuaren) telefonoa ere eskaini egiten zaie.

Osasun zerbitzuarekin, Kuadrillarekin eta ikastetxeekin koordinatu behar izan dutenean, koordinazio hau ona eta partehartzailea izan da.

Erasotzaileari arreta

Unitateak erasotzaileari gutxienez lehen entrebista bat izatea eskatzen die, baina askotan ez dute hau onartzen edo zuzenean ez dute erantzun ere egiten eurekin harremanetan jartzen direnean. Beste batzuk, aldiz, lehen entrebista horretara joaten dira, eta bertan, egoera azaltzen zaie eta babes neurriren bat badute azaldu egiten zaie zer gertatuko litzaiokeen hau errespetatuko ez balu eta ze egoeratan ez duen errespetatzen. Euren protokoloaren arabera, erasotzailea elkarrizketatu behar dute beti eta arriskuaren balorazio bat egin entrebista burutu eta gero.

Erasotzaileei bere eskubideen berri ematen diete, eta aldi berean, dituzten errekursoak zeintzuk diren azaltzen zaizkie, hala nola tratamendu psikologikoa; baina, oso gutxi erabiltzen dituzte eskainitako zerbitzuak. Horrez gain, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen baliabide ezberdinak eskuratzeko eskubidea dutela ere jakinarazten diete.

Elkarrizketatutako pertsonak diote, espediente batzuetan biak izaten ditela erasotzaileak eta biktimak, kasu hauei indarkeria gurutzatua hots egiten diete. Kasu hauetan, atestatuetakoa bat genero indarkeria bezala tratatzen da eta bestea etxeko indarkeria bezala.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA 2017

Emakumeen indarkeriatik irtetzeko ibilbidea

Ibilbidea kasuaren araberakoa izaten da, zeren, emakume batzuek hasieratik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jotzen dute, euren bizipenaren berri ematera, eta gero, presatuago daudenean komisaldegira jotzen dute salaketa bat tartekatzera; beste kasu batzuetan, aldiz, prozesua Ertzaintzak esku-hartu behar izan duen eraso baten ondorioz ematen da, beraz, ibilbidea salaketa bat tartekatuz jartzen da abian.

Emakumea osasun zerbitzuetara joaten denean eta lesioen parte bat dagoenean, osasuneko langileek parte hau epaitegietara bidaltzeko betebeharra izaten dute, eta ondoren, epaitegiak dagokion komisaldegiarekin jartzen dira harremanetan, horrela, Ertzaintzak inbestigazio bat jartzeko martxan. Guzti hau ez dela egiten adieraten dute elkarrizketatuek, are gehiago, Kuadrillan ez dela horrelako kasurik eman jakinarazi digute.

Ertzaintzak espedienteen jarraipen bat egiten du beti, baina elkarrizketatutako agenteek azpimarratzen dutenagatik, emakumeek honetan kolaboratzen dute, orokorrean; baina ez zaie gustatzen, zeren, gertatutakoa behin eta berriz gogorarazten die. Emakumearekin harremanetan jartzen dira bi hilabeterik behin; hala ere, izan dituzte kasuak non emakumeek dena ongi zegoela adierazten zuten, eta geroago jakin duten erasotzaileek ez zutela urruntze agindua betetzen eta emakumeek hau ahalbidetzen zutela. Euren esanetan, kasuren batean, emakumeak gehiago ez deitzeko eskatu die; kasu hauetan, beste pare batetan jartzen dira harremanetan emakumearekin eta bere ez nahitasuna jakinarazten badie behin baino gehiagotan, Ertzaintzak kasua dokumentatu eta deitzeari uzten du.

Zailtasunak eta proposamenak


Kasuari segimendu bat egiteko zailtasuna azpimarratzen dute, izan ere, jakin badakite gai batzuk tratatzea eta aldizkako arriskuaren balorazioa egitea ez dela eroso emakumeentzat.

Euren ustetan, eskaintzen duten zerbitzua oso ona da eta emakumeek egiten dieten balorazioa ere positiboa izaten da. Dena hobe daitekeela adierazten dute, baina dauden baliabideak mugatuak dira. Inguruan, Loremaitea (haurtzaindegiko zerbitzua), bezalako zerbitzu bat izateko beharra somatzen dute.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

7.4. Prebentzio eta sentsibilizazio zerbitzuak

Kuadrillan biztanleria hartaritzen duen, eta indarkeria kasuak detektatu eta sentsibilizazio eta prebentzio kanpainak egin dezaketen zerbitzuak daude. Zerbitzu hauek hurrengo estrukturaren arabera antolatzen dira:



Zerbitzu Soziokulturala eta Kirolekoa Kuadrillan dauden jarduera kulturak eta kirol jarduerak arduratzen da; hauek, nagusiei, nerabeei...zuzendurik egon daitezke. Prebentzio komunitarioarekin batera, duela urte batzuk, emakumeen topaketa bat antolatu zuten; horrez gain, ikastetxeekin batera ipuin, literatura eta generoari buruzko erakusketa bat ere antolatu zuten.

Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak, momentu puntualetan berdintasuna sustatzeko jarduerak antolatu ditu. Zerbitzu hau droga kontsumoaren prebentzioan, asoziazionismoaren sustapenean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek adierazitako arazoei erantzun komunitario bat ematen etab. zentratzen da.

Sustapen Ekonomikoaren Zerbitzuak enpresekin zerikusia duten gaiak jorratzen ditu; hala nola langabezia, langileen formakuntza, turismoaren sustapena etab.

Hiru zerbitzuen esanetan, eurek antolatzen dituzten ekintzetan partehartzen dutenen gehiengoa emakumezkoa izaten da, kirol txapelketetan izan ezik.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA 2017

Kuadrillako indarkeria matxista egoeraren balorazioa

Zerbitzu hauetan lan egiten duen pertsonal teknikoak horrela definitzen du indarkeria matxista: gizonezkoak emakumearen gain indarkeria eragiten duen egoera oro, bai indarkeria fisikoa edota psikologikoa denean; gainera, euren esanetan indarkeria mota hau ez da soilik bikote harremanen barne ematen, bizitzako arlo guztietan ematen baita. Indarkeria mota hau ez dutela emakumeek bakarrik sufritzen adierazten dute, LGTBIQ+ gizataldeak ere indarkeria mota hau jasan baitezake.

Indarkeria matxistaren zergati nagusia, gizonezkoei emakumeen gaineko pribilegioak eman dizkien kultura da; hau, urteen joan-etorrian helarazi da, aro-zaro. Generazio berriek gizon emakumeen berdintasuna lortzeko aurrera pausoak egin dituzten arren, oraindik ere haurrek era inkontziente batean kultura matxista honetako ezaugarriak barneratu, eta genero estereotipoak errepikatzen dituzte.

Langile teknikoek ez dakite zeintzuk diren emakume bat genero indarkeria jasaten ari dela somatzeko egon daitezkeen adierazleak. Teknikarien esanetan, egoera arlo pribatuan izkutatuturik dagoenean, emakumeekin duten harreman estuak eta euren intuizioak soilik lagundu ahal die emakume hori indarkeria egoera bat bizitzen ari dela jakiteko.

Elkarrizketatutako pertsona batek Kuadrillan emandako indarkeria kasu bat ezagutu zuen. Agresioa espazio publiko batean eman zen eta inguruan zegoen jendeak egoera honen aurrean nola jokatu jakin zuen: Ertzaintzarekin harremanetan jarri eta biktimari laguntasuna eskaini zien. Kasu zehatz hau, publikoa izan zen, eta horrek erantzun egoki bat ematea ahalbidetu zuen, baina, Teknikariaren ustetan, kasua ez balitz publikoa izango eta egoeraren gaineko susmoak soilik izango balute, jendeak ez zuen erantzungo, izan ere, horrelako egoeretan biztanleriak ez du sartzeko joerarik izaten.

Herrietan horrelako egoeren berri izatea oso zaila dela adierazten dute, zeren, gehienetan izkutatutako joera egoten da. Bizi osoan zehar indarkeria mota hau jasan duten eta egoeraren jakitun ez diren edo hau aldatzea ezinezkoa dela uste duten emakume nagusiak egongo direla uste dute; are gehiago, emakume hauek aislatuturiko udalerrietan egon daitezkeela deritze.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Kuadrillak ez du indarkeria matxista saihesteko tailerrik antolatu, soilik, Lamingoriak talde feministak antolatutako ekintzaren bat egon da. Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak, urtean behin, Arraia-Maeztuko eta Santikurutze Kanpezuko ikastetxeetan harreman sexualen gaineko tailer bat antolatzen du, non, berdinen arteko harremanak eta eginkizunen arteko banaketa lantzen diren. Kuadrillako Berdintasun Teknikariak martxoak 8ko eta azaroaren 25eko kanpaina ezberdinak egin ditu.

Langile teknikoek euren lana burutzeko, momentuan dituzten beharrezan araberako koordinatzen dira elkarrekin; indarkeria kasuren baten berri izango balute, Gizarte Langilearekin koordinatuko liratekela diote.

Elkarrizketatutako pertsonak Santikurutze Kanpezuko Udalaren gizon eta emakumeen Berdintasunerako Ordenantza eta Arraia- Maeztuko diagnostikoaren berri dute; baina, euren ustetan, Udaletxeen egintzak eraginkorragoak izan beharko lirateke. Dokumentuak existitzea ezinbestekoa dela onartzen dute, baina, uste dute aurreikusitako neurriak hartzeko neurri eta baliabideak ahalbidetu behar direla, eta horretarako Udaletxeak eta Kuadrilla gai honekin konprometitu behar dira.

Udalerriko Berdintasun Teknikaria

Santikurutze Kanpezuko Udaletxeko Berdintasun eta Kulturartekotasun Teknikariak tarte bat libre hartzeko ezintasunak zela eta, ezin izan genuen berarekin gelditu, beraz, bere iritzia idatziz jaso dugu.

Udaletxean 15 pertsonak egiten dute lan (8 emakumek eta 7 gizonek), eta hauetatik 10ek berdintasun arloko formazio zehatza jaso dute (6 emakumek eta 4 gizonek). Erabaki gaitasun propioa duen Berdintasun Arloa du, eta hau udalerriko gainerako arloekin koordinatzen da.

Ordenantzak adierazten duen bezala, ikastetxeetan koedukazio eta erantzunkidetasun ekintzak, eta biztanleria osoari zuzendutako genero indarkeriaren kontrako kanpainak burutu dira. A25eko astea aprobetxatuz, ludotekak haurrentzako tailer bat antolatu zuen; beste alde batetik, eta honen harira, Institutuarekin koordinatuz, kartelen bi lehiaketa antolatu zituzten. Teknikariak ez daki zentro honek beste inizatibaren bat antolatu duen; Udaletxeak "Beldur Barik" programan parte hartzeko proposamena luzatu zion, baina azkenean

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA 2017

ez zuen egin.

Biztanleria, genero indarkerian sentsibilizatzeko kanpaina batzuk burutu dira, triptikoak editatu eta banatu dira, eta horrez gain publizitatea egin da; horrela, Udaletxeak, Laia Eskolak eta Arabako Foru Aldundiak antolatutako ekitaldi ezberdinetan parte hartzera bultzatu da biztanleria. Horrez gain, berdintasun gaietako aholkuak emateko postontzi bat dauka Udaletxeak.

Berdintasun Teknikariak, norbait indarkeria matxistaren biktima denaren susmoak sortu dakioken adierazleak ezagutzen dituela dio. Baina, hala ere, ez du horrelako kasurik izan; kasuren bat izango balu gaiaren gaineko konpetentzia eta jakintza duen zerbitzuren batera deribatuko luke.

Indarkeria kasuentzako ez du koordinazio protokolorik, baina horrelakoren bat izan beharko lukeela deritzo. Lamingorriak talde feministak, indarkeria matxista azaldu eta honen aurrean zer egin eta nora jo azaltzen zuen dokumentu bat garatu zuen, eta Udaletxeari bidali zion; honek, *Indarkeria matxista kasuen aurrean esku-hartzeko Protokoloa* izeneko dokumentua aztertu zuen, erabakiz hau era sakonago eta zehatzago batean landu behar zela, beraz, hau burutzeko lan-talde bat sortzea proposatu zuen. Teknikariaren arabera, talde feministak udaletxeari azaldu zion ez zegoela asoziazio bezala osaturik eta ez dutela nahi instituzioekin batera lan egin; aitzitik, Udaletxeak, gaia berriz landu eta era bateratu batean lan egiteko aukera zabalik utzi zuela dio.

Gaur egun, Berdintasun Plana aurrera eramateko plan eraginkor bat ez duten arren, planean barneraturik dauden akzio batzuk dagoeneko jorratu dira:

- Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Kanpezuko biztanleriari zuzendutako sentsibilizazioa.
- "Jaiak berdintasunean" emateko kanpaina zehatz bat burutu zen, Administrazio Batzordeekin koordinazioan.
- Emakumeen aurkako indarkeria aurkatzeko baloreak garatzeko sentsibilizazio kanpaina egin zen espazio soziokulturaletan eta kirol espazioetan.
- Emakumeen aurkako indarkeria saihesteko, haur eta nerabeei zuzendutako aisialdiko hezkuntza programak.

Berdintasun teknikariak uste du, langile politikariek lan egiteko gogo eta asmoa dutela, nahiz eta indarkeria gaiaren inguruan duten jakintza oso murrizta izan. Bere

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

lana aurrera eramateko babesturik sentitzen da (arlotan), baina gobernuan dauden formazio eta sentsibilizazio gabeziak, bere lana oztopatzen du.

Bere lana egiteko udalerriko beste zerbitzu batzuekin harremanetan da eta, hauekin duen hartu-emana zuzena eta arina da; gehien bat Kuadrillako Kultura eta Kirol zerbitzuarekin eta Berdintasun Teknikariarekin erlazionatzen da.

Kuadrillako Oinarrizko Zerbitzuekin izan ezdik, beste guztiekin harremana arina da; honekin informazioa eskuratzeko arazoak izan ditu sarritan (informazioa eskatzea Gizarte Zerbitzuetako konpetentzietan muturra sartzea dela sentitzen du). Hortaz, zerbitzu honekin informazioaren hartu-emana izateko zuzeneko kanal bat izan beharko lukela deritzo.

Horrez gain, langile teknikariei esker, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuarekin komunikazio zuzen eta jarraia dauka; eta kasu puntualetan Eusko Jaurlaritzako Berdintasun Sailarekin eta Emakunderekin egin ditu koordinazioak.

Biktimen artatzeari dagokionez, udalerritan ez da era ofizialean inolako arretarik eskaini, baina, bere ustetan komenigarria izango litzateke gai honi dagozkion aurrera pausoak arinago ematea.

Bere eskura dituen datu ofizialak aintzat hartuz, Berdintasun teknikariak uste du indarkeria matxistaren arazoa ez dela larria udalerritan, hala ere, bere esanetan inoiz "ez da erne egoteari utzi behar". Berdintasuneko udal politikak positiboki baloratzen ditu, eta uste du bai Udaletxeko langileak eta baita biztanleria ere, geroz eta sentiberagoak direla arazo honi dagokionean; hau, tailer eta jarduerak ezberdinetako parte-hartze aktiboarekin ikus daiteke. Gainera, Udaletxeko langile administrari eta politikoak urtero formakuntza saio ezberdinak jasotzen ditu bere, IVAP-en, Emakunderen edo Gizonduz-en eskutik.

Berdintasun Planak, indarkeria matxistaren aurrean egin beharreko esku-hartzearen Protokolo bat egin behar dela adierazten duen arren, hau egin gabe dago; izan ere, plangintza konkretuago bat egiteko zain daude. Jakinarazi diotenagatik, Kuadrillak Udaletxe guztiek barneratuko duten protokolo ofizial bat garatu nahi du.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

7.5. Ikastetxeak

Bi elkarrizketa egin dira: bata, Santikurutze Kanpezun dagoen CPI- Mendialdea IPI-ko zuzendariari; eta bestea, Arraia-Maeztuko CEIP Maeztu-HLHI-ko zuzendariari.

CPI Mendialdea IPI

Ikastetxe honek hiru etapa edota hezkuntza maila ditu (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eta zuzendaritza talde bakarra dauka guztientzat; hau, zuzendari batek, bi zuzendari buruk eta idazkari batek osatzen dute.

Ikastetxean, guztira 31 langile daude, 26 emakumezko eta 5 gizonezko, zenbateko hau irakasleen, sukaldeko eta jantokiko langileen eta garbitzaileen arteko batura da.

2017 ikasturteko ikasleak horrela banatzen dira:

Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza		Bigarren Hezkuntza	
Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
19	26	47	41	21	24
Guztira= 45		Guztira= 88		Guztira= 46	
GUZTIRA=179					

Ikastetxeko zuzendariaren esanetan ez dute Berdintasun arloko formazio gehiegi; berak, 15 orduko formazioa jaso zuen Berritzeguneak emanda. Gai basikoa dela deritzo: alde batetik, Eusko Jaurlaritzak gaiaren inguruko formazioa izatera behartzen dietelako; eta bestetik, euren bizikidetzako Plana jarri nahi dute martxan, hortaz, hau lantzeko komisio bat osatu dute.

Aurten, Eusko Jaurlaritzak indarkeria matxistaren gaineko formazioa eman die, baina, saio hau oso basikoa izan da. Bizikidetzeta eta indarkeria matxistan zuten formakuntza beharrezana jakinarazi zen Berritzeguneari. Hortaz, honek eskainitako 15 tailer jaso behar zituzten, baina hauek aurrera eramateko arazoak izan zituen Berritzeguneak, beraz, langileen artean landu zuren materiala; euren ustetan jasotako materiala oso orokorra zen eta ezin zen martxan jarri.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

CEIP Maeztu HLHI

Ikastetxe honek bi hezkuntza maila eskaintzen ditu, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; ondoren, ikasleak Santikurutze Kanpezura edo Gasteizera joaten dira. 11 irakasle daude, 10 emakume eta gizon bakarra; hauetatik, soilik, 3 emakumek eta gizon batek dute lanpostu finkoa.

2017 ikasturtean ikasleak horrela banatu dira:

Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza	
Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
12	22	22	18
Guztira= 34		Guztira= 40	
GUZTIRA=74			

Ikasleak 42 familiakoak dira, eta hauetatik bakarra da guraso bakarreko familia..

AGLE-k (Arabako Gizarte Laneko Elkarteak) eskaintako "*Berdintasunean hezitzen. genero indarkeriaren aurkako hezkuntza*"-ren gaineko formazioa jaso dute; honek ondorengo helburuak ditu:

- ❖ Berdintasunean oinarritzen diren balore ezberdinak sustatzea, hezkuntza sistemaren bidez.
- ❖ Tratu txarrei aurre egiteko beharrezko baliabideak eskaintzea.
- ❖ Bakoitzak bere nortasuna eraikitzea, sexismo eta biolentziarik gabe.
- ❖ Neska-mutilek dituzten genero estereotipoen ondorioez hausnartzea.
- ❖ Indarkeria fisikoa, psikologikoa eta hitzezko indarkeria antzematen jakitea.
- ❖ Jokaera biolentoen gaineko kontzientzia garatzea eta hauen inguruan hausnartzea, horrela, hauei behar bezala aurre egiteko.
- ❖ Bizitzako estereotipo sexistak eta sexismoa antzematen ikasi.
- ❖ Neskek eta mutilek eskubide berberak dituztela onartzea, eta gauza berberak egin ditzaketela ulertzea.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA 2017

7.5.1. Ikastetxeek indarkeria matxistaren inguruan duten iritzia

Gizonezkoek emakumeekiko eta homosexualekiko (gehien bat gayekiko) dituzten jarrera agresiboak; ez soilik fisikoak. Jokaera matxista bezala hartzen dituzte komentario eta jarrera sexistak; hau da, gizartean nagusitzen den kultura androzentrikoan oinarritzen diren eta urteen joan-etorrian mantendu eta errepikatzen diren jarrera eta jokaerak.

Ikastetxe batek nesken aurkako indarkeria somatzen dutela diote, neska izate hutsagatik ematen dena; aitzitik, askotan jarrera matxistak bizikidetzara arazoekin nahasten dira. Hori dela eta, kasu batzuetan irakasleek ez dute jakiten gertakaria nola izendatu.

Bi ikastetxeek adierazten dute zaila egiten zaiela marka fisikoez gaindiko adierazleak antzematen, beraz, norbait indarkeria egoera bat jasaten ari denaren susmoa soilik izan dezaketela diote; hau gertatzen denean, haurraren jarrera aldaketak aztertzen ahalegintzen dira eta irakasleen artean hitz egiten dute, baina, hala ere, zaila iruditzen zaie egoera identifikatzea.

Ikastetxeetako batean, indarkeria kasu baten susmoa izan zuten, baina hau ezeztatu egin zuten, aldiz, beste ikastetxean indarkeria gertaerak izan dituzte: neska bat sexualki erasotu zuten, eduki matxistako irainak eta ziber-indarkeria kasu bat. Kasu guzti hauetan, egoera gelditzeko neurriak hartu zituzten eta gertatutakoa familiei jakinarazi zieten. Horrez gain, badakite ikasleren baten amak genero indarkeria jasaten duela. Hala ere, ama erasotzaileen kasuak eman daitezkeela adierazten dute, bai haur edota euren senarrekin.

Agresioa ikasleen artean gertatzen denean, protokoloa jartzen da martxan eta Hezkuntza Ikuskaritzari honen berri ematen zaio, edo bestela, Gizarte Langilearekin edo medikuarekin jartzen dira harremanetan. Ikastetxeetako batek, ikasleen arteko indarkeria matxista beste edozein indarkeria mota bezala tratatzen dute, zeren, lehenik eta behin, ezarri behar dituzten neurriak berberak dira, eta bigarrenik, ez dakite ze erantzun izan beharko litzatekeen egokiena. Ikasleen ama bada indarkeria jasaten ari dena, Gizarte Langileari ematen zaio egoeraren berri.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Bi ikastetxeek dute kasuen erregistro bat, honi esker, irakasleen artean aztertzen dituzte kasuak eta familiei jakinarazten zaie gertatutako; horrez gain, honek jarraipen bat egitea ahalbidetzen du.

Azken 3 urteetan ez dutela indarkeria matxistari buruzko tailerrik eman onartzen dute biek. Bizikidetzaren gaineko formakuntzaren bidez indarkeria mota ezberdinak lantzen dituzte zeharka. Horrez gain, indarkeria matxista ikasleekin lantzea zaila dela adierazten digute, ez baitute onartzen.

Ikastetxeetako batek Arabako Foru Aldundiak bultzatutako "A Golpe de Palabra" kanpaina jaso zuen. Irakasleen esanetan, ikastetxeak jasotako emaitzak onak izan ziren, baina ez zen argi gelditu ea honekin eskola jasapena edo indarkeria matxista lantzen zen.

Ekar dezagun gogora, "A Golpe de Palabra" 2016-2017an Arabako Lurralde Historikoko ikastetxe ezberdinetan aurrera eramane zen kanpaina bat izan zela; hau eskola-jazarpenean eta ziber-jazarpenean zentratzen zen, baina gazteriaren genero indarkeriarekin lotzen zuen gaia. 2015-2016ko lehen edizioan azken gai honetan zentratu ziren batez ere.

Aztertutako ikastetxe batek ez du indarkeria matxistaren aurkako kartelik, aldiz, besteak puntu lila dauka jarrita eraikineko leku ezberdinetan. Martxoak 8a bezalako egun puntualetan, ikasleek aurreko asteetan zehar egindako kartel ezberdinak jartzen dituzte.

Ikastetxeetan kasuak detektatzeko duten zailtasuna izaten da duten arazo larriena, zeren informazioa batzuetan ikasleengatik heltzen da eta hau egia den edo ez frogatu behar da. Ematen ari den indarkeria mota klasifikatzeko zailtasunak ere badaude, ez baitakite genero indarkeria kasu bat bizikidetzako kasu batetatik bereizten.

Indarkeria kasuak hartaratzeko ikastetxeak hurrengo zerbitzuekin koordinatzen dira:

- Kuadrillako Gizarte Langilearekin.
- Osasun langileekin.
- Arreta psikologikoko zerbitzu foralarekin.
- Kuadrillako eta Santikurutze Kanpezuko Berdintasun Teknikariekin.
- Batzuetan, Udaletxeko zinegotziren batekin.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

- Berritzegunearekin.

Zerbitzu ezberdinekin duten harremana askotan hartarutzen duen pertsonaren izaera eta konpromesuekin loturik egoten da. Ez dute izaten zerbitzu hauekin koordinatzeko edo harremanetan jartzeko arazorik; ez dute hobetzeko proposamenik.

8. KUADRILLA ETA UDALERRIETAKO ELKARTEEN IRITZIA

4 elkarrizketa burutu ziren 5 elkarteri, guztira 7 pertsonak parte hartu zuten: Bi guraso Elkarteri (AMPA) talde entrebista bat burutu zitzaien, Aguake Elkarteari elkarrizketa indibidual bat egin zitzaion eta beste bat "Asociación Cultural de la mujer Campezana"-ri eta azkenik, Lamingorriak Talde feministari beste elkarrizketa bat egin zitzaion.

8.1. Lamingorriak talde feminista

Lamingorriak bere burua talde feminista anitz bat bezala definitzen du; adin, ideologia eta feminismoaren gaineko irizpide ezberdinak dituzten pertsonak osatua baita. Elkartea emakume askok osatzen duten arren, 10 dira aktiboenak. Taldea sortu zenetik, duela 7 urte, talde feministak bere izaera propioa apurka-apurka garatu du; hasiera batean, elkartzen zirenei interesatzen zaizkien gai ezberdinak lantzen zituzten, baina azken urteetan eragin publikoa dute, aktiboagoak dira eta Kuadrilla osoan zehar jarduten dute.

Taldeak ez dauka leku propiorik, beraz, kultur etxeetan, ludoteketan, euren etxeetan edo beste espazio batzuetan elkartzen dira. Urteko programazioa zehazturik izaten dute; fetxa zehatzetan izan ezkik (non, beti zerbait antolatzen duten), gainerako guztia behar edo momentuan dituzten aukeren arabera antolatzen dute.

Ekintza guztiak udalerrri handietan ez egiten ahalegintzen dira (hau da Santikurutze Kanpezun eta Arraia-Maeztun); horrela udalerrri guztietara heltzen saiatzen dira, zeren, emakume asko ez dira euren udalerritik mugitzen, batez ere emakume nagusiak. Urtean behin, Mendialdeko emakumeen afari bat antolatzen dute; emakume asko bertaratzen dira afari honetara, eta horrela, harreman sarea handiagotzen dute.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Indarkeria matxistaren gaineko ekintza zehatz hauek ere antolatu dituzte: parte hartze handia izan zuten autodefentsa tailer bi (hala ere, aipatzen dute, bertaratu ziren emakumeen gehiengoa jada kontzientziaturik zegoela) eta 2016ko urrian jardunaldi feminista batzuk antolatu zituzten Maeztun (hauetara jendetza hurbildu zen).

Taldearentzat Arabako Mendikateko emakumeen egoera ikusaraztea da lehentasuna, izan ere, emakume hauetako asko aislaturik bizi dira; udalerrira errepide nagusitik zenbat eta urrunduago egon, sistema patriarkala gero eta indartsuagoa da (batez ere jende nagusiaren artean). Lamingorriakoek eredu patriarkalari aurre egin eta inguru eta estruktura sozial patriarkal batetan bizitzeko zailtasuna duten emakume heldu eta gazteen babesak izan nahi dute. Honen harira, taldea emakumeak laguntza edo informazio bila jotzeko erreferente gisa eraiki da.

Lamingorriakentzat indarkeria sektore ezberdinetan ageri da eta oso era isilduan gainera. Indarkeria kasuen berri izan dute, baina, dena ezkutuan mantentzen da: denek dakite gertatzen ari dena, baina inork ez du ezer esaten.

Indarkeria ulertzeko modu zabala dute; indarkeria ez dute soilik bikote arteko harremanetara mugatzen, hau era ezberdinean eta kontestu ezberdinetan eman daitekeela defendatzen dute, adibidez kalean: eguneroko jazarpenera, hizkera sexista etab. eta Kuadrillako ohiko errealitatea dela adierazten dute. Are gehiago, udalerrira batzuetan kasu batzuk era publiko batean ezagutarazi dira; hauetako kasu batean, emakumea taldera hurbildu zen laguntza eske eta honek era aktibo batean jokatu zuen.

Gazteei dagokionean, uste dute mutilak geroz eta kontrolatzaileagoak direla eta oso gogorra den hizkera sexista erabiltzen dutela; bestalde, neskek baliabideak, informazioa eta ikasketa maila altua duten arren, ez dute indarkeria identifikatzen. Horrez gain, udalerrira askotan indarkeria alkohol, bikote eztabaida edo biktimaren errua dela esanez justifikatzen dute, beraz, "zerbait egingo zuen" bezalako esaldiak oso ohikoak direla adierazi digute eta kasu hauetan erantzun soziala oso murrizta dela.

Lamingorriak ere aktibo batean parte hartu du Maeztun antolatu zen musika festibalerako (Mendialdea Music Festival) egin zen agresio sexisten aurkako protokoloan; horretarako, festibaleko antolatzaile, Kuadrilla eta Arraia-Maeztuko Udaletxearekin batera egin zuten lan.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

Agresioen aurrean jarraitu beharreko pautei buruzko dokumentu bat ere garatu du taldeak, hau, biztanleriari banatzeko asmoarekin. Dokumentuan zer den agresio bat eta nola jokatu horrelako baten aurrean azaltzen da. Lan honekin jarraitu nahi dute Kuadrilla eta Udaletxe mailan; horretarako, Kanpezuko Udalarekin elkartu dira pare bat aldiz, baina oraindik ez dute ezer zehaztu. Hala ere, taldearentzat ezinbestekoa da protokolo bat garatzea, honek, kontzientziazioan, parte-hartzean eta instituzioek biktimekiko duten konpromisoan aurrera pauso handi bat suposatuko baitu.

Kuadrillako Berdintasun Teknikaria heldu arte, elkarteak ez zuen inolako harremanik Kuadrillarekin, material batzuk eskuratzeko soilik jartzen diren harremanetan; hori dela eta, Udaletxe guztiak koordinatu, eta Lamingorriak eta instituzioen arteko harremanen zubi egiten duen norbait izatea era positibo batean baloratzen dute. Aldiz, ez dute inolako harremanik izan Santikurutze Kanpezuko Berdintasun Teknikariarekin; are gehiago, ez dute Berdintasun Teknikari bezala identifikatzen, Kulturarteko Teknikaritzat baizik. Bestalde, Berdintasun Zinegotziarekin izan dituzte hartu-emanak, eta euren ustetan bai Zinegotzia eta baita Teknikaria gehiago inplikatu beharko lirateke gaian.

Ertzaintzarekin duten koordinazioari dagokionean, uste dute, adeitasunez tratatu dituzten arren, erantzuna ez dela izan ez behar zen besteko azkarra, eta ez dituztela erasotzailearekiko neurri egokiak hatu; behin, eraso bat eta gero, erasotzailea aske utzi zuten eta honen ondorioz beste eraso bat eman eta berriz ere esku-hartu egin behar izan zuten.

Gizarte Zerbitzuekin duten koordinazioari dagokionean, Gizarte Langilearekin behin bakarrik jarri dira harremanetan; bertan, taldeak egoera jakin baten aurrean laguntza eskatu zion eta ez zuten espero zuten erreakzioa jaso, biktima gehiago babestu beharko lukela eta honi baliabideen berri eman beharko liokela deritze. Euren iritziz, biztanleriak ez ditu ezagutzen indarkeriaren biktimentzat dauden baliabideak; gainera, uste dute, hauek oso geldoak direla eta ez dutela berehala erantzuten. Asteburuetan agresio bat egoteko beldur dira, emakumeak ezingo baitu asteleheneraino itxaron esku-hartzearekin hasteko.

Instituzioei dagokienean, Santikurutze Kanpezuko Udalarekin harremantzeko zailtasunak dituzte; aldiz, Maeztuko Udalarekin duten harremana ona da eta komisiok gauzak errazten dizkie. Kuadrillako gainerako udalerriekin ez dute harremanik izan, baina, uste dute Bernedoko Udalarekin koordinatzen hasi beharko

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

liratekela, zeren, alkate berriaren izendapenak honetarako baldintzak hobetzen ditu.

Bestalde, instituzioek indarkeria kasu larrietan izaten duten erantzuna era positibo batean baloratzen dute, baina, erantzuna soilik kasurik ikusgarrienera mugatzen da eta ez dituzte emakumeek jasaten dituzten indarkeria mota guztiei aurre egiten. Hortaz, udaletxeen erantzuteko gabeziak eta prebentzio politika gehiago garatzeko beharra azpimarratzen dute.

8.2. Gurasoen elkarteak (AMPAK)

Santikurutze Kanpezuko Mendialde Guraso Elkarteko pertsona bat eta Arraia-Maeztuko Arraiamendi Guraso Elkarteko bi pertsona elkarrizketatu ziren.

Mendialdea Guraso Elkarte

Zuzendaritza batzordea 12 gurasok osatzen dute, 9 emakumek eta 3 gizonek, eta hilean behin elkartzen dira. Gainerako guraso eta seme-alaben lankidetzak eskatzen duten arren, parte-hartzea oso baxua da. Elkarteak Santikurutze Kanpezun zentratzen da, eta honek beste gune batzuetan bizi direnei bertaratzea galarazten die, zeren, autobusez mugitzeko zailtasunak daude (Arabako Foru Aldundiak jarritako eskola autobusean mugitzekoak izan ezdik).

Kuadrillako Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuaren bidez, inoiz, Logroñoko harrera-gela batetan eman dituzte tailerrak; honen beharrezan ikusi da, zeren ikastetxeetan (batez ere nesken artean) gatazka ugari eman dira. Euren hasierako intentzioa tailer hauek ikastetxeko geletan ematea zen, baina ezin izan zuten hau burutu, zeren kabineteak ez zuen euskaraz lan egiten.

Arraiamendi Guraso Elkarte

Elkarteak 30 familiak osatzen dute, hauetatik bi guraso bakarreko familiak direlarik. Zuzendaritza batzordea urtean behin berriztatzen da, eta gaur egun 3 emakumek eta 3 gizonek osatzen dute.

Batzordeak AMPA-ren ekintzak koordinatzen dituen, eta hauen erantzule egiten den arren, beste 3 lan batzorde ditu ikastetxeekin: **Bizikidetzak Batzordea**, zeinak, Behatokian (bizikidetzarako behatokian) parte hartu eta konbentziaren gaineko

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

gai guztiak lantzen dituen; **Euskararen Batzordea** eta **Jantokiko Batzordea**. Bizikidetzaren Batzordearen barnean Berdintasun Batzorde bat daude osatzen.

Parte-hartze sozialari dagokionagatik, elkarrizketatutako pertsonen esanetan baxua da, zeren, udalerrri askoz osaturik dagoen ingurua da, eta Santikurutze Kanpezun bezala mugikortasun arazoak dituzte, garraio publikoa ez baita egokia.

Kuadrillako Berdintasun Teknikariarekin batera, ikastetxeetan dauden eta berdintasunarekin erlazio zuzena duten harramantzako arazoak konpontzeko proiektu integral bat osatu nahi dute (ikasleek, irakasleek eta gurasoek osatua).

Indarkeria matxistaren balorazioa

Indarkeria matxista definitzerako orduan ezberdintasunak dituzten arren, guztiak bat datoz hau ezberdintasun historiko eta sozialean oinarritzen dela, zeinaren bidez, gizonezkoak emakumezkoen gainetik jartzen diren. Halaber, eruetako batek hori honako hau gehitzen dio: indarkeria matxista emakumeak gizonezkoengan ere eragin dezakela. Euren esanetan, indarkeria matxista ez da bikote artean ematen den indarkeria soilik, horrez gain, adibidez lan arloan eman daitekeela adierazten dute. Horrez gain, homofobia ere indarkeria matxista mota bat dela diote, generoaren sozializazioaren ondorio baita.

Argi dituzte indarkeria matxistaren adierazle ezberdinak, baina, hauek eskola jazarpenean nabaritzea errazagoa dela adierazten dute, izan ere, jokaera aldaketak, marka fisikoak eta sare sozialen bidez egindako kontrola errazago somatzen baitituzte. Aldiz, zailagoa iruditzen zaie adierazle hauek genero indarkeria kasu bat ematen denean somatzea, familia ezagutu behar baita horretaz jabetzeko; kasu hauetan, indarkeria egoera haurren bitartez antzematea dela errazena diote.

Elkarte biek ezagutzen dituzte eskola jazarpen eta genero indarkeria kasuak (bakoitzak bere ikastetxe eta udalerrian). Lehenei aurre egin ahal izan zaie eta egoera era eraginkor batean bideratu da, are gehiago, transexualitate egoera bat ere normalizatzea lortu da; genero indarkeriari dagokionean, Ertzaintzak inguruan egindako esku-hartzea goraiatzen dute.

Elkarrizketatutako pertsonak nola jokatu eta kasuak nola bideratu dakitela baieztatu dute. Izan ere, elkarteetan Gasteizko biktimen arretarako zerbitzuetan lan egiten duten pertsonak daude, eta hauek jokatzeko protokoloak ezagutzen

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

dituzte; horrez gain, Ertzaintzak kasuen aurrean nola jokatu azaldu zien, eta ama batzuk Clara Campoamor elkartean lan egiten dute eta oso inplikaturik daude gai hauetan.

Azken hiru urteetan, aipatutako Logroñoeko kabineteko formakuntzaz gain, Kuadrillarekin kolaboratuz bigarren mailako indarkeriaren gaineko prebentzio tailerrak antolatu dituzte. Aldi berean, elkarteetako batek bizikidetzara bideraturik zegoen bideo bat grabatu zuen; bertan, homofobia eta gizon-emakumeen arteko harreman desorekatuen buruz hitz egiten zen, besteak beste.

Duela bi urte, elkarteek Lamingorriak elkarte feministarekin eta Udalarekin batera indarkeria protokolo bat burutu zuten eta ikastetxeetan eta Arraia-Maeztuko osasun zentroetan jarri zuten. Ikastetxe mailan protokolo zehatzik egon ez arren, Mendialde Guraso Elkarteak burutu zuen Bizikidetzaren Protokoloan ikasgeletan ematen den indarkeria ere landu zen. Bestalde, Arraiamendi Guraso Elkarteak adierazten dunagatik egoera hauek Behatokian (Bizikidetzaren Behatorkian) lantzen dira.

Koordinazioa eta izandako arazoak

Elkarteak, gehien bat, euren ikastetxeekin koordinatzen dira. Santikurutze Kanpezuko ikastetxearekin ez dute koordinazio arazorik izan; aldiz, Arraia-Maeztukoarekin bai, izan ere, ekintzak aurrera eramateko erresistentzia asko somatu dituzte eskolaren aldetik, eta gainera, ikastetxeak erabakiak hartzen ditu Udaletxearekin batera elkarteek esateko dutena aintzat hartu gabe. Elkarteek koordinazio ona dute bakoitzak bere Udaletxearekin, Kuadrillarekin eta honen Berdintasun Teknikariarekin.

Elkarrizketatutako pertsona batek honako hau jakinarazi digu: familiarteko indarkeria kasu baten berri izan zuen, hortaz, ahal bezain pronto Gizarte Langilearekin jarri zen kontaktuan (behin baino gehiagotan), baina honek ez zion egoerari inolako erantzunik eman, beraz, Emakunderen autobus mugikorra herrira heldu zenean hauei egoeraren berri eman zien, eta azkenik, emakume biktimak behar bezalako arreta jaso zuen.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen funtzionamendu eta baliabideen (batez ere indarkeria matxistaren gainekoenak) gainean dagoen informazio gabezia zailtasun bat dela adierazten dute; biztanleriak ez daki ze eskaera mota egin behar dion zerbitzu

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

bakoitzari eta Gizarte Langilearekin duten hurbiltasun gabeziak ere ez du laguntzen. Ertzaintzako komisaldegia Guardian egotea ere oztopo bat dela adierazten dute; eta hau, Santikurutze Kanpezura astean pare bat bidar etortzen den arren, herritarrek ez dakite noiz izaten den.

Biztanleria osoak uler dezakeen protokolo bat garatzea beharrezkoa dela deritze, batez ere nagusiek uler dezaketena; non, dauden indarkeria mota guztiak eta gradu ezberdinak azaltzen diren, eta baita ere, non, eskura daitezkeen baliabide ekonomiko eta pertsonalak ulertarazten diren. Horrez gain, mugikortasun arazoak konpondu behar direla adierazten dute, bestela ezin baitira baliabide eta zerbitzu ezberdinak eskuratu.

Elkarrizketatutako pertsonen ustetan udalerrri mailan indarkeria matxista gehiago landu behar da, zeren, momentuz egin duten gauza bakarra 2017ko Mendialdea Music Festival-erako pautak batzuk ezartzea izan da "*Sexismo, homofobia, transfobia edo bestelako edozein jarrera iraingarririk gabeko gunea*" lelopean; non, Kuadrillak Arraia-Maeztuko Udalak eta Lamingorriak talde feministak kolaboratu zuen.

8.3. Aguake Elkarte

Antoñanako herrian kokatzen den elkarte honetako partaide bat elkarrizketatu genuen, Aguake 75 eta 85 urte bitarteko 12 emakuek osatzen duten talde bat da eta duela 30 urte herriko emakumeen arteko harremanak eraikitzeko asmoz sortu zuten. Ez dauka lokal propioirik, eta bere esanetan, ez dago taldearekin jarraituko duen gazterik. Irteerak, bazkariak, kirol tailerrak etab. antolatzen dituzte. Aurton, Emakundek genero indarkeriaren gaineko hitzaldi bat eman zien eta oso interesgarria iruditu zitzaion.

Herrian, ez du ezagutzen indarkeria matxista kasurik, baina bai Kuadrillan. Horrez gain, ohartu da, emakume askok ez dutela parte-hartzen elkartean, euren senarrei denbora galtze bat iruditzen zaielako; baina, gaur egungo emakume gazteak geroz eta ahaldunduago daude, beraz, egoera jada ez da berdina.

Emakundek emandako hitzaldia dela eta elkartean ere indarkeria matxistari buruz hitz egiten hasi da; mintzaldiari esker, normalizaturik zeuzkaten indarkeria motez jabetu dira. Indarkeria kasuren baten berri izango balu, Gizarte Langilearengana edo Emakundera joko luke.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA 2017

Ez dauka harreman gehiegi Gizarte Langilearekin, baina, inoiz koordinatu dira Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin; hala ere, gehien bat, animatzaile soziokulturalarekin koordinatzen dira, honek, jarduera kulturalak antolatzen laguntzen diete eta euren arteko harremana oso ona da. Zerbitzu hauen funtzionamendua soilik gaintetik ezagutzen duela onartzen du.

Landa-eremuan, batez ere jende nagusiaren artean, dagoen pentsaera honako hau da: "eremu pribatuan gertatzen dena pribatua da eta hor gelditu behar da"; eta hau da indarkeria matxistaren arazo larriena. Eta gaur egungo gizadia sensibilizatuago dagoen eta aurre egiteko baliabide gehiago dituen arren, gazteria jokaera matxista berberak errepikatzen ari da.

8.4. Asociación Cultural de la Mujer Campezana Elkarte

Santikurutze Kanpezun kokatzen den elkarte honetako partaide bat elkarrizketatu zen. Elkarte 1988an sortu zen eta garai artan 30-40 emakumek osatzen zuten, baina harrezkero, parte-hartzea murrizten joan da ,eta gaur egun 57 eta 80 urte bitarteko 14 emakumek osatzen dute. Elkartzeko Kultur-etxea erabiltzen dute.

Elkartearen helburua emakumeak etxea ez zen gune propio bat izanez ahalduntzea zen; Gasteizko Herriko Kultura Zentroak (2016an desagertuak) bultzatu zuen eta gaur egun Caritas egiten da honen arduradun. Momentuan interesatzen zaizkien gaien inguruko hitzaldi eta tailerrak antolatzen dituzte; jarduera hauek, orokorrean, ez dira irekiak izaten, baina irekiren bat egin dutenean ere beti berdinek parte-hartu dute. Elkarteak indarkeria matxistaren gaia landu ez duen arren, bazkide batzuk gai honen inguruko kanpo hitzaldietan parte-hartu dute.

Emakume bat indarkeria jasaten ari denaren adierazleak ezagutzen ditu, teoriarik, baina ez daki ea gai izango balitz hauek praktikan jartzeko. Elkarteak ez du izan indarkeria kasurik eta inor ez zaie laguntza eske hurbildu.

Elkarteko partaideei ez zaie gaia interesatzen, ez baitira identifikaturik sentitzen, genero indarkeria kontzeptu berria delako edota ez zelako existitzen elkarte sortu zutenean; baina hala ere, garai artan genero rol tradizionalen presioa sentitzen zuten, ez baitzegoen onarturik emakumeak elkarrekin batzea, jarduerak burutzea etab.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Indarkeria kasu baten berri izango balu, oso argi dauka emakumeari behar duen laguntza eskaini eta Gizarte Langileari, medikuari edo Ertzaintzari egoeraren berri emango ziola. Bere esanetan, lehen, abadea zen horrelako kasuetan izaten zuten pertsona erreferentea.

Elkartea, subentzioak jasotzeko, animatzaile soziokulturalarekin koordinatzen da, eta Udaletxeko subentzioen berri izateko, kasu batzuetan Santikurutze Kanpezuko Berdintasun Teknikariarekin koordinatzen dira; horrez gain, Kuadrillako Berdintasun Teknikariarekin harremanetan jartzen hasi dira.

8.5. Intereseko beste agente batzuk

Diagnostikoa osatzeko, informazioa eman eta gaiaren inguruko euren ikuspuntua eman dezaketen beste agente batzuk ere elkarrizketatu ditugu. Beraz, inguruan lan egiten duten bi apaizi eta anonimotua mantendu nahi izan duten beste hiru pertsona elkarrizketatu zaie.

Kuadrillan genero indarkeria kasuak egon direnaren jakitun dira bi apaizak eta emakume nagusiek beraien arazoak berri ematen dietenez, hauek euren bikoteen eskutik jasaten duten indarkeriaren berri izaten dute, are gehiago, batzuek honi buruz hitz egin diete euren senarra hil ondoren. Apaizek kontatzen zizkiguten kasu batzuetan, indarkeria esplizitua egon ez arren, emakume batzuek euren senarren eskutik abandonua edota isolaturik bizi direla jakinarazi zieten.

Gainerako pertsonen esanetan udalerrietan matxismoa existitzen da, batez ere jarrera hauek normalizaturik dituzten jende nagusian, baina biztanleria osoan ere jarrera hauek nabarmentzen dira, zeren gehiago edo gutxiago baina gizon-emakumeek jarrera hauek normalizat hartzen dituzte. Emakume asko beldur direla eta sumisio asko dagoela adierazten dute; hauek etxeko zaintza lanez arduratzen dira, eta beraz, etxe barruan isolaturik bizi dira.

Elkarrizketatutako pertsona batek, indarkeria egoeratik irtetzeko pausoa ematera ausartu ez diren emakumeak ezagutu ditu. Horrez gain, uste dute, biktima izan behar dela egoera honi aurre egiteko pausoa eman behar duena.

Gainerako agenteek bezala, hauek ere, adierazi digute indarkeriari aurre egiteko zailtasun handiena normalizazioan datzala, euren esanetan emakume hauei

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

laguntzeko prest egongo lirateke, baina, salaketa tartekatzeraz animatzeaz gain ez dakite zer egin beharko luketen. Kasu larri baten aurrean, Ertzaintzarekin edo Gizarte Langilearekin jarriko lirateke harremanetan.

Indarkeria matxista, aurreko belaunaldietako eredu matxistak errepikatzen diren arazo kulturaltzat hartzen da. Udallerri hauetan, gizon eta emakumeen rola oso zehazturik daude; elizan ikus daitezkeen bezala, gizon eta emakumeak banaturik jartzen dira, eta nahasteko esaten dieten arren, ohitura horrekin apurtzeko zailtasunak izaten dituzte.

Kasuak detektatzeko zailtasunak garrantzitsuak direla adierazten dute, izan ere, euren esanetan, indarkeria matxista izkutaturik dago eta askotan arlo pribatura mugatzen da; hortaz, profesionalentzako eta biztanleria osoarentzako sentsibilizazio hitzaldiak eman, eta egoera bakoitzean zer egin eta norengana jo azaldu beharko litzatekela deritze, horrela, biztanleriak arazoaren berri izan dezan.

9. JARRERA ESKALEN EMAITZAK

Diagnostikoan bildutako iritziekin bukatzeko, interesgarria iruditu zaigu bi talde ezberdinei egin zaizkien bi jarrera eskalen emaitzak konparatzea: alde batetik, kuadrillako langile politiko eta teknikoari egindakoa; eta bestetik, elkarrekin partaide ziren emakumeei egindakoa.

Langile politiko eta teknikoari 25 itemeko eskala bat eman zitzaion; non, indarkeria matxistaren eta hau jasaten duten emakumeen gaineko iritzi eta jakintzak nahasten zituen baieztapenak egiten ziren. Eskala 2. Eranskinean dago. Eskala hau, Red Kuorum-ek emandako formakuntza bat jarraituz egin da. Emakumeei banatutako eskala 22 itemekoa izan zen, aurrekoaren antzekoa, baina, bertan oso jakintza espezializaturiko baieztapenak ezabatu ziren. Eskala Sortzenek Santikurutze Kanpezun emakumeekin burututako formakuntza saio batean banatu zen. Horrez gain, bietan azken emaitzari gehitzen ez zitzaizkion erantzun anitzeko 3 galdera zeuden.

Bi eskaletan emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan duten **jakintza eta sentsibilitatea** neurtzen zen, horretarako 1etik 4rako puntuazioa (oso ados, ados, ez-ados, guztiz ez-ados) batzen zen emaitza lortzeko. 25 itemeko eskalaren kasuan, puntuazioa, teorikoki, 25-100 puntu inguruan egin beharko lirateke; aldiz, benetan jasotako emaitzetan puntuazio tartea 41-77 bitartekoa izan zen, hauekin

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017


hiru maila eratu ziren: sentsibiltate eta jakintza baxuak (41etik 53ra), erdi mailakoak (54tik 65era) eta altuak (66tik 77ra). 22 itemeko eskalak, puntuazio teorikoak 22-88 bitartekoak izan beharko lirarteke, baina, 41 eta 75 puntu bitarteko puntuazio erreala eskuratu zen, eta hauekin ere hiru maila zehaztu ziren: sentsibiltate eta jakintza baxuak (41etik 53ra), erdi mailakoak (53tik 65era) eta altuak (64tik 75era).

Guztira, 25 eskalekin egin zen lan (11 langile politiko eta teknikoak eta 14 emakumeak), zenbateko hau ez da nahikoa bertatik orokortu daitezkeen ondorioak ateratzeko, baina, hausnartzeko baliagarriak izan daitezkeen nondik norakoak ematen dizkigu.

9.1. Sexu eta adinaren arabera sailkatutako erantzun orokorrak

Langile politiko eta teknikoaren artean eskuratutako batezbestekoa **59,5** puntukoa da: indarkeria matxistaren gainean erdi mailako sentsibilizazio eta jakintza.

6. Grafikoa. Langile politiko eta teknikoaren sentsibiltate eta jakintza maila Z=11




Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

Emakumeen batezbesteko puntuazioa **62**koa izan zen: indarkeria matxistaren gainean erdi mailako sentsibilizazio eta jakintza.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

**7. Grafikoa. Emakumeen sentsibilitate eta jakintza maila
Z=14**



Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

Bi taldeen batezbesteko puntuazioa antzekoa den arren, parte-hartzaileen kokapena ezberdina da. Alde batetik, langile politikarien gehiengoa erdi mailan kokatzen da; bestalde, emakumeen gehiengoa maila altuenean dago.

Emakumeen taldea sexuari dagokionez homogenea zenez, aldagai hau langile politiko eta teknikoan azter dezakegu soilik.

**9. Taula. Langile politiko eta teknikoaren sentsibilitate eta jakintza maila
sexuaren arabera
(Z=11)**

Sexua	Sentsibilitate baxua	Erdi mailako sentsibilitatea	Sentsibilitate altua
Emakumea	1	3	2
Gizona	2	2	1

Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

Talde honetan, sexuaren araberako ezberdintasunak ageri dira: emakumeek sentsibilitate erdi-altua dute, aldiz, gizonezkoek erdi-baxua. Honi esker, langile politiko eta teknikoaren sentsibilitate eta jakintzak areagotzeko formakuntza beharra, eta honekin batera gizonezkoen inplikazio eta interes maila sustatzeko beharra dagoela ondorioztatu dezakegu.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA**

2017

**10. Taula. Langile politiko eta teknikoaren sentsibilitate eta jakintza maila
adinaren arabera
(Z=9)**

Adina	Sentsibilitate baxua	Erdi mailako sentsibilitatea	Sentsibilitate altua
43 – 51	1	3	2
52 – 59	0	1	0
60 – 68	1	1	0

Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

**11. Taula. Emakumeen sentsibilitate eta jakintza maila adinaren arabera
(Z=14)**

Adina	Sentsibilitate baxua	Erdi mailako sentsibilitatea	Sentsibilitate altua
28 - 37	0	0	2
38 - 46	1	4	3
47 - 57	0	1	3

Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

Bi taldeen sentsibilitate eta jakintza maila adinaren arabera aztertuz gero, ez da ezberdintasun nabarmenik ageri.


9.2. Iritzi polemikoak

Indarkeria matxistaren gaineko iritzi batzuei dagokionez, taldeetako batean homogeneotasun gutxien izan duten iritziak aztertuko ditugu. Ezberdintasun gehien nabari diren gaiak ezberdinak dira langile politiko eta teknikoaren eta emakumeen artean. Jarraian, adibide bereizgarrienak ikusiko ditugu.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

**8. Grafikoa. Langile politikarien eta teknikoen banaketa hurrengo intem-
ean:** *“Erasotzaile batek bere jarrera aldatu nahi badu beharrezkoa da bere
emaztearen laguntza izatea”.*

Z=11



Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

11 pertsonatik 7 ez ados edo oso ez ados egon arren, 4 (taldearen herena) baieztapen honekin ados edo oso ados egoteak joera hau aldatzeko erantzukizuna norena den lantzeko beharra adierazten digu.

**12. Taula. Langile politikarien eta teknikoen banaketa hurrengo intem-
ean:** *“Neska gazte batzuen jarrerak bikote arteko indarkeria harremanak sustatzen
dituzte”.*

Z=11

Sexua	Ados	Ez ados	Oso ez ados
Emakumea	0	2	4
Gizona	2	2	1


Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

Deigarria eta kezagarria da talde honetako 5 gizonetatik 2 baieztapen honekin bat etortzea.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

9. Grafikoa. Langile politikarien eta teknikoen banaketa hurrengo item-ean: *"Tratu txarreatatik zigor bat izateak ez du seme-alabekin harremanak izatea eta hauekin komunikatzea galarazi behar"*.

Z=11




Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

Azter dezakegun bezala, gai honek iritzietan banaketa ugari sortzen du, eta eztabaidatua izan behar den gai bat dela deritzogu, zeren, honek bere ondorioak ditu, bai prebentzio eta baita arreata politketan. Ikerketa askoren esanetan, banaketa bat baldin badago, baina, aita erasotzailea baldin bada, seme-alabek indarkeria jasaten jarraitzen dute.

10. Grafikoa. Emakume taldearen banaketa hurrengo item-ean: *"Gizon eta emakumeen arteko berdintasun eza da genero indarkeria existitzearen zergati nagusia"*.

Z=14



Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua


Azter daitekeen bezala, elkarrizketatutako emakumeek gai honen gainean iritzi ezberdina dute: taldearen %57ak ez du uste genero indarkeriaren arrazoi nagusia gizon-emakumeen arteko desberdintasuna denik, aldiz, gainerako guztiek bai. Honek, emakumeak sentsibilizatzeko lanean sakontzeko beharra uzten du agerian.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

11. Grafikoa. Emakume taldearen banaketa hurrengo item-ean: "Gaur egun, emakume biktimenzako euren egoera jakitera eman eta laguntzak eskatzea errazagoa da, gizartearen kontzientzia maila handia baita".

Z=14




Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

Emaitzek baieztapen honen inguruan dagoen iritzi banaketa simetrikoa dela erakusten digute. Egia da, gaur egun, ematen duela gizartea kontzientziatuago dagoela, baina, oraindik ibilbide luzea dago egiteko. Esperientziak, datuek eta batez ere, emakume biktimen testigantzek emakumeek euren egoeraren berri ematen dutenean jasaten duten zalantzan jartze eta berbiktimizazioa erakusten digute.

12. Grafikoa. Emakume taldearen banaketa hurrengo item-ean:

"Gizonezkoek euren bikotearekiko izaten dituzten indarkeria jarrera asko eta asko alkohol edota sustantzia toxikoen edo gaixotasun mental baten ondorio dira".

Z=14



Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Berriz ere, item honetan iritziak era berean banatzen dira. **Eguneko Zentroetako Genero indarkeria eta droga menpekotasuna**²⁴ ikerketaren arabera, erasoak drogaren bati loturik dauden kasu gehienetan kontsumitutako droga alkohola izaten da, baina sustantzia honen **gehiegizko kontsumoak** ez ditu erasotzaileen jokaera biolentoak bere osotasunean azaltzen, zeren, alkoholak aurretik emandako jarrera bortitzak aktibatzen ditu soilik. Genero indarkeria eta gaixotasun mentalen arteko harremanari dagokionez, **Bikote arteko indarkeriaren prebentzioaren garrantzia**²⁵ ikerketaren arabera, erasotzaileen %10ak soilik izaten du arazo mentalen bat.

9.3. Materiaren ezagutza

Indarkeria matxistaren gaineko jakintza aztertu dugunean, bai langile politikari eta teknikoak eta baita emakumeek ere *Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoari* eta emakume biktimentzat dauden baliabideei buruzko zalantzak dituztela aztertu dugu.

13. Taula. Bi taldeen banaketa hurrengo item-ean: "Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren arabera indarkeria mota hau gizonak emakumeari eragindakoa edo emakumeak gizonari eragindakoa izan daiteke".

Z=25

Taldea	Ez daki/ ez du erantzuten	Oso ados	Gutziz ez ados		
			Ados	Ez ados	ados
Politiko-teknikoa	6	2	2	-	1
Emakumeak	3	2	6	1	2

Erantzunek, Kuadrillako pertsonal politiko, tekniko eta emakumek Legearen gaineko ezjakintasun nabarmena dutela adierazten dute, beraz, derrigorrez da, batez ere lehen taldearentzat, ezjakintasun honi aurre egiteko formakuntza jasotzea.

²⁴ Eguneko Zentroetako Genero indarkeria eta droga menpekotasuna. Andaluziako Biltzarra. http://www.juntadeandalucia.es/Igualdadybienestarsocialopencms/system/bodies/Drogodependencia/Publicacion/VIOLENCIA_GENERO_CD/violencia_de_genero_y_drogas.pdf

²⁵ Valentziako Nazioarteko Unibertsitatea. 2015. <http://www.viu.es/investigacion/informes/psicologia/la-importancia-de-la-prevencion-en-la-violencia-de-pareja/>


INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Langile politiko eta teknikoaren ezagutza arazoak agerian gelditzen dira emakumeen eskubideen edo baliabideen gaineko item-etan Ez daki/ez du erantzuten edo ez ados aukerak nagusitzen baitira; adibidez hurrengo baieztapenetan: "II Hitzarmen Instituzionalean etxeko indarkeria eta agresio sexualen biktima diren emakumeen arreta hobetzeko ezartzen den printzipio nagusietako bat ahalduntzea da", "Lege Integralaren 27.artikuluaren arabera, indarkeriaren biktima diren eta epai irmo bat duten emakume guztiak ordainketa bakarreko laguntza jaso ahalko dute".

Ildo beretik jarraituz, emakumeen taldean ere Ez daki/ez du erantzuten erantzuna nagusitu zen hurrengo item-ean: "Lege integralean genero indarkeriari buruzko sentsibilizazio eta formazioaren eginbeharrak aurreikusten dira", "Genero indarkeria kasuetan familia bitartekaritza erabil daitekeen baliabide bat da". Horrez gain, baliabideen gaineko ezjakintasuna agerian uzten duen beste bi erantzun ere badaude.

13. Grafikoa. Emakume taldearen banaketa hurrengo item-ean: "Genero indarkeria kasuetan familia bitartekaritza erabil daitekeen baliabide bat da" Z=14




Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

14. Grafikoa. Emakume taldearen banaketa hurrengo item-ean: "Salaketa da baliabide eta laguntza denak eskuratzeko gakoa" Z=14




Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

Lege Integralak²⁶ bere 44.5 artikuluan genero indarkeria kasuetan familia bitartekaritza erabiltzea galarazten du. Bestalde, salaketa soilik ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa jasotzeko da beharrezkoa, biktimak gainerako baliabide eta laguntza guztietara jo dezake salaketarik tartekatu gabe.

Azkenik, ikus dezagun, eskala zuten erantzun anitzeko galderari emakumeek emandako erantzuna.

15. Grafikoa. Laginaren banaketa item-ean: "Esku-hartzearen helburua honako hau izan behar da" Z=14



Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

Erantzunen gehiengoak esku-hartzearen helburua emakumeari indarkeriarik gabe

²⁶ Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa.
<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2004-21760&p=20151006&tn=1-ti>


INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

bizitzen laguntzea dela dio, honen arabera, gainerako jakintza galderetan aipatzen ziren gauzak baino hobeto ulertzen dute biktimarekin burutu beharreko esku-hartzearen helburua.

Hurrengo itemari dagokionagatik, emakumeen gehiengoak uste du laguntza dituzten laguntzak ez direla beti nahikoak izaten: "Zure iritzi, gaur egun, emakumeek, indarkeria egoera batetik irteteko nahiko baliabide dituzte".

16. Grafikoa. Laginaren banaketa item-ean: "Zure ustetan, emakumeen seme-alabek ere bikoteko tratu- txarrak jasaten dituzte". Z=14



Jatorria: Eskaletatik jasotako datuak kontuan hartuz, norberak garatua

Egindako asken galderan, nahiz eta iritzi ezberdinak egon, guztiek ikusten dituzte ama-biktimek beharrizan horiei behar bezalako arreta eskaintzeko dituzten zailtasunak.

10. ONDORIO ETA AHOLKUAK

10.1. Ondorioak

Lehenik eta behin, derrigorra deritzogu Kanpezu-Arabar Mendikatea Kuadrillaren kokalekuak indarkeria matxistaren gaia lantzeko duen eragina azpimarratzea. 47 udalerrri nagusi dituen Kuadrilla zabal honetan 3.000 pertsona inguru bizi dira; hots, auzotartasun estuko talde txikiak daude, eta beraz, kontrol soziala etengabekoa da eta familien isolamendua oso ohikoa. Biztanleria oso homogeneoa da, %4 soilik

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

baita atzerritarra, eta hauen isolamendua areagotzen duen garraio publiko eskasa dute; honek, gehien bat mugikortasun autonomia izateko baliabiderik ez duten emakume nagusiei eragiten die.

Guzti horretaz gain, biztanleriaren erdia baino gehiago emakumeen sumisioan eta hauen kontrolean oinarritu eta balore gisa zuen erregimen baten pean jaio eta hezi zirela kontuan izanik, ulergarria da elkarrizketatutako pertsona guztiek (bai arlo politikokoek, teknikokoek eta sozialekoek) azpimarratzen duten arazorik larriena **indarkeria matxistaren normalizazioa** izatea.

Agerikoa dena baino indarkeria gehiago dagoela somatzen da, hau da, diagnostikoaren galderak erantzun dituen gehiengoaren ustetan familietan ematen den indarkeriak gehien bat emakume nagusiei eragiten die (emakume biztanleriaren gehiengoa den talde horri), baina emakume hauek ez dute euren burua biktima bezala ikusten, hau da, ez dute onartu nahi kontrola, tratu txar psikologikoak, fisikoak edota sexualak jada ez direla gizartean "normalak" diren egintzak. Eta hori dela eta, emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko ikuspuntua era erradikal batean aldatu duen gizarte honetan, arlo politikoko, teknikoko edo sozialeko jendeak ez daki nola urgatzi laguntzarik behar ez dutela uste duten pertsonen.

Eta errealitate horrek fokua, agian distorsionaturik dagoen fokua, gazteengan jartzea eragin du; hau da, itxura batean rol estereotipatuak ez dituzten eta indarkeria matxista onartzen ez den gizarte batean era librean heziak izan diren horiengan. Aldiz, nerabe eta gazteen artean dauden tratu txar egoerak, harreman desorekatuak eta kontrolak arduratzen gaitu, zeren, jada indarkeria hori ezin omen daiteke normalizazioaren bidez azaldu. Benetan uste al dugu indarkeria justifikatzen duten familietan hezitako gazteek ez dituztela ideia hauek barneratuko? Nola egingo diete aurre familia eta komunitate kontserbatzaile eta berdintasunaren alde egiten duen gizarte baten kontraesanei? Zeretik hasteko gaitasuna izango dute, neskak gizonen jokabideen erantzule direla irakatsi dietenean?

Diagnostiko honetan ezartzen diren erronka handienak, honako hauek dira: Nola sortu daitezke errealitate honi egokitzen diren politika publikoak? Nola lagundu eraldaketa sozialari nagusiek indarkeria normalizatzen dutenean eta gazteek honetatik at daudela sentitzen dutenean? Nola hartaratu behar bezala isiltasuna apurtzeko bezain ausarta izan den biktima bat, honen garrantzia kasu gutxi batzuk

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

direlako gutxietsi gabe eta baliabide publiko batera laguntza eskatzera joatean egin duen esfortzua (gizartearen, familiaren eta baldintza pertsonal orenen aurka jo izana) ulertuaz?

Diagnostiko hau aurrera eramateko elkarrizketatu den biztanleria, Kuadrillako kontzientzia eta ardura gehien duena da, eta hala ere, frustrazioa adierazten dute; zeren, eurek indarkeria matxistarengan duten pertzepzioak (gainerako gizadiarena baino handiagoa eta zehatzagoa dena), honen normalizazioarekin egiten du talka. Baina errealitatea ez da ez azkar eta ezta erraz eraldatuko, ibilbidean oztopo ugari izango baititu; hori dela eta, sentsibilizatorako, prebentziorako eta harretarako politika publikoak garatzea ezinbestekoa da.

Elkarrizketatuen gehiengoak indarkeria matxistaren ikuspuntu zabal bat dauka, hau da, ez du soilik bikote heterosexualen baitan kokatzen. Aldiz, euren diskurtso eta ardurak gehien bat honetan zentratzen dira, nahiz eta datuen arabera, familien baitan ematen den indarkeria jasaten dutenak izan gehienetan laguntza eskatzen dutenak. Familiarteko indarkeriaren gaineko informazio gutxi daukagu, eta baita, bere dinamika eta honetatik irteteko ibilbidearen gain; hauek, bikote arteko banaketa batekoak baino konplexuagoak baitira.

Ikastetxeetan ere eraso sexual, hitzezko indarkeria eta ziber-indarkeriari egiten diete aurre; erantzun bat eman zaie detektatutako egoerei, baina, horiek indarkeriaren izebergaren punta dira, eta irakasleei horrek asko arduratzen die.

Genero indarkerian (bikote edo bikoteoi heterosexualean ematen denean) eta familiarteko indarkerian, jasotako datuen arabera, laguntza eskatzen duten emakumeek ibilbide sozial bat egitea hautatzen dute; hau da, zerbitzu sozialetan eskatzen dute laguntza, salaketa bat tartekatu beharrean. Egiaztapen horrek, argi uzten digu, langile teknikariek, osasungintzako langileek, arlo sozialkoek eta emakumeentzat erreferente izan daitezkeen elkarteek indarkeria matxista antzemateko adierazleen gaineko ezagutza hobetzeko beharrezana dutela.

Biktimen laguntza sarea indartu eta indarkeria matxistaren normalizazioa zalantzan jartzeko, lehenik, indarkeria matxistaren nondik norakoak azaldu behar dira. Deigarria da elkarrizketan eta iritzi eskaletan behin baino gehiagotan bi noranzkodun indarkeriaren ideia azaltzea, hau da, gizonek emakumeei eragindako indarkeria eta alderantzizko indarkeria.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Indarkeria matxista ulertzeko modu horrek ez dio inolako mesederik egiten Kuadrillaren egoerari. Eta gainera, gaiaren larritasunaren erlatibizazioak indarkeria indartu dezake; are gehiago, emakumeen autodefentsarekin gizonezkoak biktime senti daitezke. Hori gutxi balitz, hau guztia emakume biktimei buruzko iritzi eta obserbazioekin kontraesanetan dago. Indarkeria matxistaren jatorri estrukturala eta genero indarkeriarekin duen harremana ulertu ezean, ezin izango da indarkeriaren adierazpen ezberdinen dinamika ulertu.

Deigarria da, indarkeriak (bai esposizioagatik edota erasotzailearekin harremanetan egoteagatik) seme- alabengan duen eraginaren gainean elkarrizketatutako pertsonen duten ardura falta. Indarkeria belaunaldiz-belaunaldi ez emateko ezinbesteko estrategia da indarkeria pairatu eta normalizatzen duten haur eta gazteak artatzea.

Honen lanketan, elkarteen sareak ezinbesteko eginbeharra du, baina beti ere eginbehar hau gainerako gizarteko sarearekin batera egin behar da; zeren, haur eta gazteek euren denboraren zati handiena eskoletan pasatzen dute, eta honez gain, ikasteko ereduak familietatik eta gizartetik bertatik hartzen dituzte.

Azkenik, aipatzekoa da, diagnostikoak erakusten digun errealitatea zaila izan arren, (eta agian horretxegatik) emakume eta gizonen arteko politika publiko garrantzitsuak hasi direla garatzen, orain, hauei indarkeria matxistaren gaineko lanketa bat gehitu behar zaie soilik; hasteko, bere definizioa landu behar da, zeren, ganoraz ulertu gabe zailagoa da sentsibilizazio, prebentzio eta arreta politikak garatzea.

Gure ustetan, ezinbestekoa da politika hauen garapen eta segimenduan partehartze politiko handiagoa egotea. Langile teknikoaren eta elkarteen lana ez da nahikoa izango Kuadrillako politikarien laguntza argi eta irmorik ez badago.

10.2. Aholkuak

Ondorioak aztertu eta gero, egin dezakegun lehen aholku orokorra honako hau da: indarkeria matxistaren aurka egiteko, tokiko politikek indarkeria matxistaren zergati eta ondorioen buruzko sentsibilizazio eta formazio programak ezarri behar dute; eta gauza berbera egin behar dute Kuadrillako espresio modu konkretuarekin.

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

Talde politikoez, langile teknikoek eta elkarteek indarkeria mota honen ezaugarri eta modu ezberdinak, eta hau pairatzen duten emakumek euren egoera onartu eta laguntza eskatzeko dituzten zailtasunak ulertzea ezinbestekoa da.

Sentsibilizazio honi esker, biktimek eman behar dutela indarkeria egoera batetatik irtetzeko pausoaren ideia murriztea lortu behar da; horrela arazoa, azaro sozial bat bezala ulertu behar dute gizarteko pertsona guztiek. Egoera argira ateratzeko prozesua emakumeen ibilbidearekin adeitsua izan behar da, eta batez ere emakume, haur eta gazteei eragiten dien kontrol mekanismoan zentratu behar da.

Gomendio orokor honen ondoren, lanketa honetan zentratzen diren aholku zehatzagoak egingo ditugu.

- Kuadrillan dagoen familiarterako indarkeria (eta bikote artean ematen dena baino errazago azaleratzen dela ematen duena) era sakonago batean aztertu behar da.

Ikerketen arabera, familiarterako indarkeria, ia beti bikote arteko indarkeriarekin batera ematen oi da, baina honen dinamika ikerketa sakonago baten bidez frogatu behar da. Diagnostiko hau burutzerakoan biktimekin hitz egiteko zailtasunak izan ditugunez, ezin izan dugu gai honetan sakondu, baina gomendagarria izango litzateke lanketa hau zerbitzu sozialek euren gain hartzea.

- Ezinbestekoa da gizarteari, indarkeria jasan duten emakumeei babes emateko dauden baliabideen berri ematea; hau, era argi eta labur batean egin behar da, agian baliabideren bati lehentasuna emanaz.

Aztertu dugunagatik, Satevi-ren telefonoak oso paper garrantzitsua jokatu du kasu batzuetan, hori dela eta, ahal izango litzateke baliabide honekin koordinazio hitzarmen bat sinatu.

- Beharrezkoa da langile teknikariei norbait indarkeria jasaten ari dela adierazi ahal dien adierazleen, arretarako pauten eta biktimen nola lagundu jakiteko formakuntza ematea.

Formakuntza honen bidez, arazo honen konplexutasunaren aurrean frustrazio eta paralisi zentzazioa ez zabaltzea lortuko zen; eta batez ere, biktimei, bizi duten indarkeriaren normalizazio edo indarkeria honekin bukatzeko dituzten

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

zailtasunak ez leporatzea lortuko zen, hau prozesuaren parte dela onartuko baitzuten.

Langile teknikariaren artean urteroko topaketak burutzeko aholkua jarraitzea garrantzitsua izango litzateke; horrela, formakuntzak izaera integral bat izango luke eta biktimen hartaratzean edota indarkeriaren prebentzioan arlo bakoitzak dituen arazoak partekatu ahal izango lukete.

Horrez gain, beharrezkoa deritzogu beste indarkeriaren biktima batzuei buruzko formakuntza: indarkeria euren gurasoek edo eurek pairatu duten haur eta nerabeak.

- Emakumeak harretan hartzen dituzten langileek Gizarte Langilearen ordutegitik at nola jokatu behar duten jakitea komenigarria izango litzateke.

Aholku hau baliagarria da elkarte sarearentzako eta biztanleriarentzako, bere osotasunean.

- Kasuak artatzeko agente ezberdinen koordinazioa ona dela egiaztatzen den arren, uste dugu sentsibilizazio eta prebentzio politiken koordinazioa hobe daitekeela; batez ere, bai Kuadrillako eta baita udalerrietako gizarte zerbitzu eta berdintasun arloen artean.

Kontuan izanik, sentsibilizazio eta prebentzio arloa direla garatzeko garrantzitsuenak, koordinazio hau ezinbestekoa da Kuadrillan ikusten dituzten kasuei buruzko informazio banaketa egoki bat emateko.

- Indarkeria matxistaren gaineko kontzientzia areagotzeak arreta areagotzea eragin dezakeela aurreikusi behar da. Areagotze hori, politiken arrakasta adierazle bat da, zeren, indarkeriaren normalizazioaren ezabatzea adieraziko luke.

Aldiz, beharrezko ikusten da zerbitzu sozialen indartze bat, batez ere Gizarte Langilearena, horrela indarkeria matxista kasuak hartaratzearekin zerikusia duten funtzioak burutzeko.

- Kuadrillako langile politiko eta teknikoaren eta elkarten arteko koordinazio handiago bat emanez gero, uste dugu, indarkeria matxistaren aurkako

INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU- ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA

2017

politiken indartze bat gertatuko zela. Adibidez, urteroko jarduera baten ondorioz esperientzia eta ikuspuntuak elkarbanatuz gero biztanleriarentzat horren beharrezkoa den harreman hau estutuko litzateke.

- Aldi berean, langile politikoak berdintasun eta indarkeria matxistan diharduten elkarteak aintzat hartu beharko lituzke; zeren indarkeria matxistaren sentsibilizazio eta prebentziorako ezinbesteko agenteak dira, eta aldi berean, kasuak detektatzeko ere baliagarriak izan daitezke.
- Administrazio juntetako pertsonak herri bakoitzeko erreferentzia pertsona bezala aitortu dira; hortaz, garrantzitsua da indarkeria kasuen antzemate eta biktimen arreta rola indartzea, eta aldi berean, gaiaren gaineko formakuntza berezia jaso beharko dute.
- Bukatzeko, datuak bildu eta zehazki aztertze modua hobetu behar da, zeren, gizarte zerbitzuetara laguntza eske joaten diren emakume biktima kopurua txikia izan arren, euren ezaugarri, motibazio eta zerbitzu ezberdinetan izandako esperientzia ezagutzea ezinbestekoa da arreta hobetu eta politika publiko hobegoak gartzeko.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

Eranskina 1. Elkarrizketatutako pertsonala

Personal Político	<ul style="list-style-type: none"> - Presidente de Cuadrilla - Gerenta de la Cuadrilla - Alcaldes/a: , Arraia-Maeztu, Bernedo, Lagrán, Peñacerrada, Valle de Arana - Concejalas: Peñacerrada y Arraia-Maeztu - Concejala de Igualdad de Santa Cruz de Campezo
Personal técnico	<ul style="list-style-type: none"> - Trabajadora Social de la Cuadrilla - Técnica de Igualdad de la Cuadrilla - Técnica de Igualdad de Santa Cruz de Campezo - Técnica Prevención Comunitaria - Técnico Servicio Sociocultural Deportes - Técnica Servicio Promoción Económica
Servicios Sanitarios	<ul style="list-style-type: none"> - JUAP de Arraia-Maeztu - Médico de Santa Cruz de Campezo - 3 enfermeras (Santa Cruz de Campezo, Bernedo y Arraia-Maeztu) - Residente (MIR) itinerante
Centros Educativos	<ul style="list-style-type: none"> - Directora CPI MENDIALDEA IPI - Director CEIP MAEZTU HLHI CEIP MAEZTU HLHI
Ertzaintza	<ul style="list-style-type: none"> - Responsable la Unidad de violencia de género y Sub. Jefe de la Ertzaintza (Laguardia)
Asociaciones	<ul style="list-style-type: none"> - Mendialdea Guraso Elkarte (AMPA) - Arraiamendi Guraso Elkarte (AMPA) - Asociación Cultural de la Mujer Campezana - Asociación Aguake - Grupo feminista Lamingorriak
Otros agentes de interés	<ul style="list-style-type: none"> - 2 Curas - 3 personas de interés
Servicio Foral de Intervención Psicosocioeducativa y Acompañamiento Social a víctimas de violencia de género	<ul style="list-style-type: none"> - Psicóloga del IFBS y responsable del servicio - Coordinadora del Hezilan, contratada para la prestación del servicios

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

Eranskina 2. Iritzi eskala

Emakumeen kontrako bortizkeriari buruz daukazu iritzia ezagutzea gustatuko litzaiguke, honetarako, gai honi buruzko galdera batzu erantzun ditzazun eskatzen dizugu. Hasteko, datu batzuk ematea eskatzen dizugu.

DATU OROKORRAK

1. Sexua:

- Emakumezkoa Gizonezkoa

2. Adina: urte

3. Taldea:

- Osasungintza Irakaskuntza
 Ertzaintza Udaltzaingoa
 Lanbide Gizarte Zerbitzuak
 Emakume taldea/ Talde feminista
 Beste udal zerbitzu batzuk
 Beste erakunde batzuk

4. Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta ematen daramazu denbora: urte

5. Emakumeen aurkako indarkerian heziketa espezifikorik:

- Bai Ez

Zehaztu

Ondoren, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eta haiekin egiten den bitartekaritzari buruzko baieztapen batzuk aurkeztuko dizkizugu. Horietariko batzuk gaiari lotutako irudikatze kolektiboan ageri diren uste subjektiboak direnez, badaiteke ados egotea ala ez; beste batzuek, esku artean dugun gaiaren ezagutza adierazten dute.

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

Adi-adi irakurri eta gero, ahalik eta modu egiazkoenean erantzun ezazu. Inork ez du zure erantzunen berri izango, galdetegia izengabea da eta.

Badaiteke galderetako batzuek zure esperientziarekin lotura zuzenik ez izatea; hala ere, erantzuteko eskatu nahi dizugu, ziur aski denei buruz edukiko duzu iritziren bat eta.

1 Edo beste modu batera esanda, baieztapenarekin Oso ados	2 Edo beste modu batera esanda, baieztapenarekin Ados	3 Edo beste modu batera esanda, baieztapenarekin Ez-ados	4 Edo beste modu batera esanda, baieztapenarekin Oso ez-ados
--	--	---	---

	ITEM	1	2	3	4
1	Tratu txarrak eragiten dituenak bere jarrera bortitza aldatu nahi badu, ezinbestekoa da bikotekidearen laguntza.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
2	Neska gazte batzuen jokaerek bikote harreman bortitzak sustatzen dituzte.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
3	Tratu txarrak jasan dituzten emakumeekin egiten den bitartekaritzaren alderdirik zailena da ezin dela eragotzi bikotekidearekin berriz elkartzea.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
4	Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak-Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak ²⁷ - ezartzen du gisa honetako indarkeria gizonak emakumearen aurka eragindakoa izan daitekeela, edota emakumeak gizonaren aurka eragindakoa.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
5	Etxeko tratu txarrak eta sexu gehiegikeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioaren printzipio orokorretako bat jabeakuntza da.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
6	Ezin da ezer egin, emakumeek gertatzen zaizkien tratu txar bizipenak kontatzen	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA**

2017

	ITEM	1	2	3	4
	dituztenean, tratu txartzat jotzen ez badituzte.				
7	Tratu txarrak ematen dizkietenekin itzultzen diren emakumeek baliabide publikoen gehiegizko erabilera egiten dute.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
8	Emakume etorkinekin esku-hartzea zailagoa da, haien kulturaren indarkeria zilegi delako.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
9	Epai irmoa duten emakumearen aurkako indarkeriaren biktima guztiek daukate Lege Integraleko 27. artikuluan ezarritako ordainketa bakarreko diru-laguntza jasotzeko eskubidea.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
10	Emakume eta gizonen arteko parekidetasun eza da genero indarkeriaren arrazoi nagusia.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
11	Sexu-eraso batzuk nesken jokabide probokatzaileen ondorio dira.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
12	Genero indarkeria salatzen duen arauz kanpoko egoeran dagoen emakume bat zigortzeko helburuz poliziak abiatutako ezein jarduera gizaki guztien Giza Eskubideak babesteko betebeharraren aurkakoa da.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
13	Indarkeriazko bikote harremanetan, seme-alabek erasorik jasaten ez badute ere, amaren aurka erabiltzen den indarkeriaren zeharkako biktima dira.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
14	Osasun zerbitzuetan aztertu ditzaten, sexu-erasoak jasandako emakumeak aurretik gertaera salatzea behartuta daude.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
15	Genero indarkeriaren alorreko sentsibilizazioa eta heziketa Lege Integralak aurreikusten dituen zereginak dira.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
16	Herri erakundeek oso gutxi egin dezakete genero indarkeriari amaiera emateko, horren arduradun nagusiak gizartea, familiak eta gizabanakoak direlako.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA**

2017

	ITEM	1	2	3	4
17	Salaketa da indarkeriaren biktima diren emakumeentzat dauden baliabide eta laguntza guztietarako giltza.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
18	Indarkeriagatik zigortua izateak ez ditu eragotzi behar aita eta seme-alaben arteko harremanak eta komunikazioa.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
19	Arauz kanpoko egoeran dagoen emakume atzeritarrak jarritako tratu-txar salaketak emakumea herrialdetik kanporatzeko espedientea irekitzea dakar.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
20	Gaur egun, gizarteak daukan kontzientziazio maila handia dela eta, askoz ere errazagoa da bikotekideak eragindako indarkeriaz jende aurrean hitz egitea eta laguntza eskatzea.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
21	Genero indarkeria kasuetan erabil daitezkeen baliabideetako bat Familia Bitartekaritzarako laguntza da.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
22	Indarkeriazko harremanetan, banatzeko erabakia hartzea oztopatzen duten arrazoen artean, beldurrak eragin askoz txikiagoa du alderdi ekonomiko eta familiarrek baino.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
23	Tratu txarren biktimei eskainitako harrera zerbitzuetan emakumea bere ardurapeko seme-alabekin sartu ahal da, baina beti ere, hauek adin txikikoak badira.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
24	Gizonek bikotekideen aurka dituzten jokabide bortitz asko gertatzen dira alkoholaren edota beste gai toxiko batzuen gehiegizko kontsumoagatik, edo aldi berean, gaisotasun mentalen bat dutelako.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
25	Banaketa prozesuari ekin eta gero, erasoak izateko arriskua gutxitu egiten da.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

**INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. KAMPEZU-
ARABAKO MENDIKATEA KUADRILLA
2017**

26. Zein izan beharko litzateke bitartekaritzaren helburua:

- Emakumeari jakinaraztea erasotzailea salatu behar duela, eta berak egin nahi ez badu, ofiziozko auzi-eskea jartzea
- Bikotekideen banaketa
- Emakumeak egin nahi duena
- Emakumeari indarkeriarik gabe bizi izaten laguntzea
- Erasotzaileak ez daitezela zigor gabe geratu
- Beste bat (zehaztu)

27. Zure ustez, gaur egun, emakumeek badauzkate indarkeriazko harremanetatik irten ahal izateko beharrezko baliabideak:

- Bai
- Bai, baina izapideak luzeak eta korapilatsuak dira
- Euskarri batzuk badituzte, baina ez dira beti nahikoa izaten
- Ez
- Beste bat (zehaztu)

28. Zure ustetan, indarkeriazko bikote harremanak bizi dituzten emakumeen seme-alabak:

- Ondo zainduta eta babestuta daude, ama horretan asko ahalegintzen delako
- Batzuetan haien zenbait behar fisiko eta emozional ase gabe geratzen dira
- Haien behar fisikoak aseta egon daitezke, baina ez dute nahikoa zaintza jasotzen maila emozionalean
- Ezin dira ondo zainduta egon, ez maila fisikoan, ez maila emozionalean, haien ama ez dagoelako ondo